

Euskaraz Bizi Eguna egingo dute zapatu honetan Leioan, hainbat eragilek antolatu dute egun osoko ekimena. ▶6

Koldo Zuazo hizkuntzalari eibartarrak euskalkien gaineko webgunea aurkeztuko du Algortan. Lan horren xehetasunak eman dizkigu. ▶15



hiruka

Uribe Kostako astekaria



55. zenbakia
2016ko
apirilaren 14tik
apirilaren 20ra arte



«Izugarri maite dut euskaraz kantatzea»

Anne Etchegoyen baxenabartarrak Biotz Alai abesbatza algortarragaz abestuko du apirilaren 21ean Bilboko Loraldia kultur jaialdian. ▶ 16-17

SAKONEAN GETXO

Fauna bizi-bizirik

Animalia ugari eta askotarikoak aurki daitezke Getxoko natura-inguruetan; 200 espezie baino gehiago zenbatu dituzte. ▶22-23



KULTURA ERANDIO

Musikariak sortzen mende laurden bat

Erandioko Musika Eskolak zilarrezko ezteiak bete ditu, 1991n hartu baitzuen Erandioko Musika Elkartearen lekukoa melomania bultzatu eta musika-ikasketak eskaintzeko. Egunotan ospatzen dabil hainbat emanaldiren bidez. ▶14

Barrikako Udalak aurtengo aurrekontuak onartu ditu, EAJren eta Ibarrikaren aldeko botoakaz. ▶8

HERRIZ HERRI URIBE KOSTA

Igerileku bila Gorliz, Lemoiz eta Plentzian

Busti Gaitezen auzokideen plataformak Gorliz, Lemoiz eta Plentziarako igerileku publiko bat gura du, hiru udalerrietako udalek elkarren artean kudeatuko luketena. Horren aldeko sinadurak batu dituzte hil osoan. ▶10

Bertso-saioa egingo dute zapatu honetan, hilak 16, Urdulizko Txiberri edan-lekuan, arrastiko 08:00etatik aurrera. ▶10

Eraginkortasun energetikoagaz

Romo Kultur Etxea 2017an zabaltzea aurreikusi dute, eraginkortasun energetikoari lotutako parametrorik handienagaz: A ziurtagiria.

Romo Kultur Etxea eraikitze obrak azken fasean daude daborduko, barneko guneen egokitze-lanakaz, alegia. Horiek amaitzean, eraikina hornitzea baino ez litzateke faltako, 2017an martxan ipin dezaten, udal arduradunen arabera. Gainera, jakinarazi dutenez, eraikuntzak A kalifikazio energetikoa izango du, eraginkortasun energetikoari lotutako parametrorik handiena. Eraginkortasun-maila hori lortzeko, batezbestekoa baino % 55 gutxiago kontsumitu behar dute eraikinek, eta Romo Kultur Etxeak hori lortuko du, geotermian oinarritutako klimatizazio-sistema bat

konbinatuz honako hauek: azken arretaren teknikoak, kontsumo txikiko led-argiztapena, emisio txikiko eta isolamendu termikoko ahalmen handiko beirak, eta fatxadetan zulatutako altzaruzko xafla-sistema bat, barrua aireztatze eta eguzki-babes eraginkorra ere izango dena, eraikinari argi naturala izateko aukera kendu barik. Azaldu dutenez, eraginkortasunaren kontzeptua zabaldu egingo da zerbitzuen zenbait arlotara eta Kultur Etxeak kudeatzen dituen arloetara; horrela, erabilgarri dauden baliabideak arrazionalizatu ahal izango dira. Instalazioek eskainiko dituzten zerbitzuen arteko sinergiekin arrazionalizazioa eragingo dute, eta horrek eraginkortasun handiagoa ekarriko du baliabide ekonomiko, langile eta energetikoetan eta mantentze lanen eta espazioen kudeaketan, besteak beste, zenbait zerbitzu publiko eraikin bakar batean batuko baitira. ◀



Eraikinak energia berriztagarrietan (geotermia) oinarritutako klimatizazio-sistema dauka.

Nagusien etxea dela-eta erreferendum bat eskatu dute

Itzubaltzeta/Romoko Ibar Nagusien Etxea elkarteko hainbat bazkide sinadurak batzen hasi dira nagusien etxearen etorkizuna erabakitze asmoz. Horien arabera, bazkideak izan behar dira erabakiko dutenak nagusien etxea Romo Kultur Etxera lekualdatu ala ez. Hori dela-eta, euren erabakitze eskubidea aldarrikatzeko asmoz, sinadurak batzen hasi dira, elkarteko zuzendaritzari ez-ohiko bilera bat eskatzeko. Apirilaren hasieran ekin zioten sinadurak batzeari, eta hilaren akabura arte jasotzen jarraituko dutela ohartarazi dute, 09:00etatik 13:00etara. Bazkideek diotenez, ez-ohiko bilera horretan lekualdatze hori onartzen duten ala ez erabaki



© ROMOKO AUZOKIDEAK

beharko dute, eta orduan adostutakoa «onartu beharra» egongo dela ohartarazi dute. Hala ere, bazkide gehienak lekualdatze horren kontra daudela jakinarazi dute. ◀

Iaz kudeatutako izapideak, 127.749

Herriararren Arretarako Bulegoek 127.749 izapide kudeatu zituzten 2015ean, aurreko urtean baino % 0.61 gehiago. Administrazio Elektronikorako Bulegoan, berriz, 537.751 orrialde bisitatu ziren iaz, aurreko urtean baino % 7,37 gehiago. Udaletxeko bulegoak erregistratu zituen izapide gehien (43.450). Ohi den legez, gehien eskatu ziren izapideak honakoak izan ziren: errolda ziurtagiriaren eskaerak (58.920), bulegoan bertan egindako galderak (32.504) eta dokumentuak erregistratzea (13.263). Kontsulta gehienak, %96,59, goizeko ordutegian egin ziren. Arrastiz, ostera, %3,41 baino ez ziren egin. ◀

info+: www.getxo.eus

Edukiontzi berriak ipiniko dituzte

Cespa eta Asaser enpresek osatutako aldi baterako elkarteak 2016ko bigarren seihilekoan ezarriko dituzte zaborra batzeko edukiontzi berriak Getxon. Horretarako, aldeztu aurretik horiek guztiak non ipiniko dituzten aztertzen dabilta, gaur eguneko kokalekuak egokiak diren ala ez, edukiontzi berriek izan ditzaketan eragina eta kalteak, besteak beste. Kaleratutako txosten baten arabera, edukiontzi berri horiekaz Cespa eta Asaser enpresek birziklatze-tasa handitu gura dute, eta ipini duten helburua hau da: % 50era heltzea 2022an. Horretarako, zerbitzu hori betetzeko esleipen-kontratuak irauten duen bitartean, hainbat neurri jarriko dituzte martxan. ◀

GetxoGas

GetxoGason Euskararekin bat!!

Getxo eta Berango artean
94 430 15 00

GURE ETXEA
taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

GOIZEAN
«Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez prentsa»

Prentsa · Fruitu lehorrak
Aldizkariak · Libxerriak

Orduña mendatea, 1. GETXO · 94 430 22 13

prentsa · aldizkariak

ITXASGANE

Getxoko kirol portua · 94 491 53 21

OSABIDE Hartz-Klinika
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina. ALGORTA · 94 430 76 96

JUAN MARI
Harategia · Urdaitegia

Baserriko haragia, produktu artisaua eta etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25

Getxo

Udan saharar umeak hartzeko zain daude

Oporrak Bakean ekimenean parte hartu gura duten familiek hilaren 29ra arte izena eman dezakete.

Urtero legez, Tindufeko (Aljeria) errefuxiatuen kanpamentuetatik umeak ekarriko ditu Sahararen aldeko Aftal elkarte getxoartzarrek, uztailetik abuztuaren amaiera arte uda gure artean igaro dezaten. 10 eta 12 urte arteko neska-mutil horietako bat etxean hartu gura duten familia getxoartzarrek apirilaren 29ra arte izango dute aukera ekimenean izena emateko. Horretarako, Aftal elkarteagaz edo Getxoko Udalagaz harremanetan ipintzea besterik ez dute.

Oporrak Bakean kanpainaren helburuak dira umeen oinarriko premiak asetzea, mediku-arreta egokia eskain-

tzea, kultura trukitzea eta sahararrek pairatzen duten egoeraz herritarrek sentsibilizatzea, besteak beste. Antolatzaileek azaldu dutenez, umeak familietan «integratzen» dira, eta apurka-apurka familien bizimodueta ohitzen dira. Horretarako, udan hainbat jarduerara antolatzen dituzte ume horientzat guztientzat, berbarako txangoak eta herri-bazkariak. Bestalde, aldian behin topaketak egin ohi dituzte, gura duten familiek elkarteagaz iritziak trukatzeko. Era berean, uneoro begirale bat dago lanean, edozer gertatuz gero familiek berarengana jotzerik izan dezaten. Halaber, Udalak jakinarazi duenez, umei eta umeak hartzen dituzten familiei Getxo Kirolak-eko txartela emango zaie harrera-hilabeteetan instalazioak erabili ahal izateko. ◀

harremanetarako: 658 751 359
atfalgetxo@gmail.com

Gaixotasun arraroak dituztenen historiak batzen dituen lana

EAEn gaixotasun arraroak dituztenen testigantzak jasotzen dituen liburu bat finantzatu du Mikel Uriarte Fundazioak. *Eskola berrikuntza gaixotasun arraroak dituzten pertsonen ikuspegitik Euskadin* liburuagaz hezkuntza inklusiboaren garrantzia eta balioa azpimarratu gura dute, hezkuntza baita gizartean normaltasunez parte hartzeko tresna nagusia. EHUko Didaktika eta Eskola Antolakuntza Saileko INKLUNI ikertaldeak aztertu ditu gaixotasun arraroak dituzten ikasleen eta familien eskolaratze-esperientziak, eta azterketa horren emaitzak jaso dituzte liburuan.

Biztanleen artean maiztasun txiki-ko gaixotasunak dira gaixotasun arraroak deritzenak. Arrarotzat hartzeko, gaixotasun espezifikoko bakoitzak pertsona-kopuru mugatu bati erasan behar dio; hau da, 5 pertsonari baino gutxiagori 10.000 biztanleko. ◀

Zurrumurruek kontra, beste 29 eragile hezi dituzte Getxon

Guztira, 29 lagunek (21 emakumek eta 8 gizonak) hartu dute parte Udalak antolatutako Zurrumurrurik Ez Estrategiaren heziketa-prozesu berrian. Orain arte, guztira zurrumurruek kontrako 100 bat parte eragilek hartu dute heziketa-prozesuetan, imigrazioaren eta kultur aniztasunaren kontrako zurrumurruek desagertzearen alde lan egiteko. Aurten parte-hartzaileek, gehienek 25 urtetik gorakoek, oso positibotzat jo dute formakuntza, eta nabarmendu dute pertsona gisa hazten, aurreiritziak identifikatzen, eta estereotipoak apurtzen lagundu diela. Jorrotutako gaien interesa eta parte hartu duten hizlarien kalitatea ere azpimarratu dituzte eragileek. Eragile horiek egun dauden lan-taldeetan egingo dute lan. Taldeak hilabetearen amaieran batuko dira, sentsibilizazio-jarduerak antolatzeko. ◀

info +: getxo.eus

BILBON. APIRILAREN 9TIK 24RA

WWW.LORALDIA.EUS

LORALDIA

EUSKAL KULTURA GAUR

BADESLE MAGUSIA

Bilbao FUNDACIÓN BILBAO 700 III MILLENIUM FUNDAZIOA

BADESLEAK

Bizkaia FUNDACIÓN FORAL

Bilbao LABORAL EUSKAL

Fundazioa FUNDACIÓN

Az

SARRERAK ESKURATU

Getxo

Mozal legeak ehuna euroko isuna ezarri die hamasei getxoztarri



Adierazpen-askatasunaren aurkako erasotzat hartu dute zigorra.

Joan den urriaren 10ean Alde Hemendik Eguneko manifestazioan «segurtasun indarren kontrako errespetu falta» egin izana leporatu diete 16 gazteri.

Joan den urriaren 10ean Algortan egindako Alde Hemendik Eguneko manifestazioan parte hartu izanagatik, Getxoko 16 lagunek ehuna euroko isuna jaso dute. Algortatik Hanka indar okupatzaileen kontrako mugimenduen arabera, isun horiek Mozal Legean oinarritzen dira, «segurtasun-indarren kontrako errespetu falta» egin izana leporatuta. Azaldu dutenez, Guardia Zibilak ipinitako salaketa baten ondorio dira zigor horiek, gerora Ertzaintzak bide administratibotik tramitatu dituen. Gazteek salatu dutenez, «horrek agerian uzten du, beste behin ere, Estatu Espainolak herriko sektore handi baten iritzi eta aldarrikapenak isilarazteko duen nahia».

«Nola da posible manifestazio legal batean parte hartzeagatik 16 pertsonak isunak jasotzea? Nola da posible polizia akusazio eta epaile gisa jokatzea?», galdegin diete «Euskal Herrian «bake-egoeran bizi direla esaten dutenei». Euren ustez, «jendarteko sektore baten aurkako errepresioa desagertzetik urrun, areagotu eta findu» egin dute; «Euskal Herrian ohituegiak gauden errepresio molde horietara, baina mozal legearekin jardunbide hori egonkortu eta legeztatu egin dute».

Jendea identifikatzeko sistemak ere ezinezona eragin die Algortatik Hanka koei. Azaldu dutenez, Guardia Zibilak grabatutako bideo baten bidez iden-

tifikatu dituzte hamaseiak, egunean bertan ez baitzuten zuzeneko identifikaziorik egin. «Alerta pizten digu kontrol sozialerako dituzten fitxategi eta baliabideen inguruan», adierazi dute, «zein fitxategi-mota dauka Guardia Zibilak identifikazio horiek egin ahal izateko?». Adierazpen-askatasunaren aurkako erasotzat hartzen dute zigorra, eta jakinarazi dutenez, «inoiz baino ozengoa» oihukatuko dute «indar okupatzaileek Euskal Herrian ez dutela lekurik».

Mozal legea, Argiaren kontra

Axier Lopez Argia astekariko kazetariari 601 euroko isuna ezarri diote «baimenik izan gabe» atxiloketa baten argazkiak Twitter sare sozialean argitaratzeagatik, operatibo horretan parte hartu zuten poliziak «identifika zitezkeela» argudiatuta. Zigorra ezartzeko Herritarren segurtasunerako 4/2015 Lege Orgakinkoaz baliatu dira, hau da, mozal legea. Lopezek joan den martxoaren 3an txiokatu zituen argazkiak, Naroa Ariznabarreta Eibarren atxilotu zuten unekoak dira. Ariznabarreta 2007an AP-8ko zirkulazioa eteteagatik inputatu zuten. Argia astekariko lantaldeak erabaki du kazetariari ipinitako isuna ordaintzeari uko egitea, azaldu dutenez, «legea erabat injustua iruditzen zaigu, eta ez dugu onartuko informatzeko gure independentzia murriztuko duen araurik».

Proposamen ugari, Algortako Gazteak taldearen ekimenez

Martxoaren 12ko aurkezpenaren ostean, martxan dira daborduko Algortako Gazteak aisialdi-talde alternatiboaren hainbat tailer. Itxura hartzen hasitako lehenengoa irakurketa tailerra izan da; 18 neska-mutil inguruk parte hartzen dute horretan, eta hilaren 22rako *La conjunta de los necios* liburua irakurtzeko hautua egin dute; ondoren, *Memorias de un amante sarnoso* lanari bide emango diote.

Mendi-taldeko neska-mutilek ere zereginik izango dute zapatu honetan, hilaren 16an. Izan ere, mendi-irteera bat antolatu dute egun horretarako; Algortatik Armintzara joango dira. Txangoa irekia izango da; hortaz, interesa duenak 09:00etan Telletxe plazara hurbildu baino ez du egin beharko. Hurrengo zapatuan, hilaren 23an, berriaz, bestelako txango bat egingo dute udalerriko neska-mutilek: sagardotegira joango dira. Horretarako, autobu-

Egitaraua

Apirilak 16, zapatua

09:00 Mendi-irteera, Algortatik Armintzara. Telletxetik abiatuta.

Apirilak 23, zapatua

11:00 Autobusa Algortako Telletxetik irtengo da.

12:10 Poteoa, Zarautzen.

14:30 Bazkaldu Usurbileko Arratzain sagardotegian.

18:00 Hernanira.

03:00 Hernanitik buelta autobusez.

sa jendez lepo bete, eta Usurbileko sagardotegi batera abiatuko dira, ostean Hernanin gaueko jai-giroan murgilduko dira. Horretan parte hartzeko alde zuretzat izena eman beharra zegoen.

Gainerako taldeak apurka-apurka martxan ipintzen dabilta, gazteek helarazitako proposamenak aintzat hartu eta gero. ◀

Kalitate turistikoan lan egiten duten 19 enpresa saritu dituzte

Eusko Jaurlaritzak 19 enpresa gehiago nabarmendu ditu «Informatzioaren eta Komunikazioaren Teknologiak erabiltzerakoan Jardunbide Egokiak» programan parte hartzeagatik eta udalerraren kalitate turistikoa hobetzeko duten konpromisoagatik. Nabarmendutakoak hurrengo arloetako enpresa-ekimenak dira: «Tabernak eta Kafetegiak» (7), «Jatetxeak» (2), «Turismo aktiboa» (4), «Ostatua» (3), «Taxiak» (3), «Museoak eta interes turistikoko gune bisitagarriak» (2) eta «Turismo bulegoak» (1). Guztira, 435 euskal enpresak lortu zuten ziurtagiria 2015ean, lehiakorragoak izateko egindako esfortzuagatik eta EAE jomuga berritzaileagoa eta kalitate handiago-

koa bihurtzeagatik. Aurten, programa hori udalerriko 25 enpresatarazabalduko dute; halere, horretan parte hartzeko interesa dutenek Turismo Bulegoagaz harremanetan ipin daitezke.

Start-up bat, final-aurrekora

Udalerriko Wegow enpresa sortu berria aukeratu dute MassChallenge munduko enpresa-bizkortzailerik handienak antolatutako nazioarteko lehiaketan parte hartzeko. *Start-up* getxoztarragaz batera, Ariadna Instruments eta Wimi 5 enpresak aukeratu dituzte. Hala, Bostonen (AEB) tailer trinko bat egin ostean, 3 *start-up* horiek mundu osoko beste 600 enpresagaz lehiatuko dira finalaurrekoan. ◀

Getxoko kaleak euskaraz betetzeko: Berbodromoa!

Datorren maiatzaren 5ean egingo da Euskararen Berbodromoa. Aurten goa bosgarren ekitaldia izango da, eta aurrekoetan legez, Getxoko kaleak euskaraz bete gura dituzte Egizu Getxo euskaldun elkarteak. Horretarako, Berbodromoaren goizeko saioak Areetako eskoletan egingo dituzte, 09:00etan eta 11:00etan. Hirugarren saioa, arrastikoa, Itzurbaltzeta/Romoko poteo-gunean egingo dute, 19:00etan. Saioak ordube-

tekoak izango dira, eta tarte horretan hiru gai jorratuko dituzte partaideek. Talde bakoitzak 6 pertsona izango ditu (dinamizatzailea eta bost lagun); hala, gai bakoitzari 15 minutu eskaini ostean, hurrengoari ekiteko parte-hartzaileek mahaia aldatuko dute, berba-kideak aldatu ahal izateko. Aurtengo erronka egun osoan 400 lagun baino gehiago elkartzeko izango da; arrastian 100 lagun batu gura dituzte. ◀

Erandoio

Proposamenak, mahai gainean

Astrabuduko parkingen lan-mahaia bigarren bez batzen astelehenean, hilabete luzearen ostean. EAJk eta EH Bilduk proposamenak egin dituzte.



EAJ eta EH Bilduren proiektu nagusiak elkarren ondoan daude. Koalizioarena prest legoke 5 urte barru.

Martxoaren 4an eratu zen Udaleko lan-mahaia, Erandion, bereziki Astrabuduak duen aparkalekua eskasaren arazoa konpontzeko. Alderdi politiko denen arteko bilera hartan, Hirigintzako zinegotzi jeltzaileak behin-behineko konponbideak bideratzeko udal teknikariak egiten ziharduten lanen berri eman zuen. EH Bilduk ere behin betiko proposamen bat mahai-gaineratu zuen, beste alderdi denakaz lantzeko.

Handik hilabetera, eta lan-mahaia berriro ere deitu barik, EAJk *Erandoio* izeneko aldizkaria kaleratu zuen, «aparkalekuaren arazoa arintzeko» proposamenak eginez. Iturri jeltzaileen arabera, ekimen hori Astrabuduko Uri Batzarrarena izan da. Esku-orrian EAJk behin-behineko lau jarduera zerrendatu ditu, batzuk Erandioko Udala ikertzen zebilenak: metro ondoko

Inbisa enpresaren solairua parkingerrako atontzea, eta 387.200 euro bideratzea; Atxutegi eta Etxebeltz moldatzea; eta ikastetxeetan aparkatzen uztea. Hala, 482 leku lortuko lirakeela diote. Era berean, Ahal Dugu, Ganemos eta Ezker Anitza-ri leporatu diete Parkingei Konponbidea Orain plataforma antolatu eta manipulatu izana.

Aldizkaria ikusita, EH Bilduk «alderdikeria» jokatzeko leporatu zion EAJri, eta barikuan bere proposamena zabaldu zuen: Inbisako lursailean enpresa-elkartegia egiten denean Udalari egokituko zaion lurra erabiltzea hiru solairuko aparkaleku bat altxatzeko. Bertan, 500 autorako lekua legoke, eta 3.000 metro koadroko gunea sortuko litzateke, besteak beste frontoia eta gune estalia jartzeko. Aurrekontua 4 bat milioi eurokoa da. Liskarren ostean, lan-mahaia astelehenean batu da berriro. Plataforma «pozik» dago. ◀

Hazilan programan 22 gazte eman dute izena daborduko

Apirilaren 5ean ipini zen martxan Hazilan proiektuaren lehenengo deialdia. Programaren hastapenean, goi-mailako ikasketak dituzten 20 eta 35 urte bitarteko 22 pertsonak eman dute izena, enpresetan praktikak egin ahal izateko. Erandioko Udalak zabaldu duenez, «ilusioz hasitako proiektu horren bitartez, udaleko enplega-

garritasuna hobetzea espero» dute. Erandioko Udalaren garapen-agentzia arduratzen da ekimenaz, eta langabezia dauden gazte erandioztar kualifikatuei beharra lortzen laguntzea du helburu. Pasa den martxoan egindako izen-ematearen prozesuaz gainera, uztailean ere Hazilan egitasmoan inskripzioa betetzeko aukera izango da, Erandioko Behargintzaren bulegoan. Langabetuek ez ezik, ikasitakoaren arabera lana bilatzen duten beharriekin ere parte har dezakete. ◀

Erandoio Urdulizko ospitalera bideratzea salatu du EH Bilduk

Udan zabaltzekoa da Urdulizko ospitalea; orduetik aurrera, hori izango da, «antza, Erandion bizi garenok egokituko zaiguna», EH Bilduk ohartarazi duenez. Koalizioak gogora ekarri duenez, lehenengo unetik Urdulizek ez ditu hartuko orain Gurutzetak eskaintzen dituen zerbitzuak, horiek «apurka-apurka» zabalduko

baitituzte. Horregatik, «Osakidetzaren erabaki hori kezagarritzat jo» zuen EH Bilduk, pasa den udalbatzan. Euren ustez, ospitalea «urrunago» dago, eta garraio publikoan erandioztarrek «erraztasun gutxiago» izango dituzte. EH Bilduk beste alderdiei eskatu die «Gurutzetan mantentzearen aldeko presioa egitea denok batera». ◀

Elikagaien Bankuarentzat izan da Beldur Barik-en saria

Pasa den abenduan, Erandioko Udalak bertako Beldur Barik bideo-lehiaketaren sariak banatu zituen. Adinbakoien kategorian, *Mensajes de Whatsapp* eta *Beldur Barik Erandoio* izan ziren irabazleak. 17 eta 26 urte bitarteko mailan, ordea, *El día en que Capucita se convirtió en el lobo feroz* lanaren sortzaile Kaperu Films taldeak eskuratu zuen 100 euroko saria. Erandioko Udalaren Berdintasun Zerbitzuak zabaldu duenez, azken talde hori osatu zuten 13 neska-mutilek sariaren diru-kopuru osoa bideratu dute Elikagaien Bankua laguntzera. Gazteek eurek azaldu dutenez, hasieran sariagaz afari bat egitea pentsatu zuten, «baina azkenean dohaintza egitea erabaki genuen, konaturatu ginelako jendeak janaria behar



Sari-banaketa. © ERANDIOKO UDALA

zuela». Gainera, bertako dendetan erosi zituzten elikagaiak, gero horiek oparitzeko. Leire Idarraga Espel Berdintasun teknikariak gogora ekarri duenez, azken lehiaketan ikastetxeak eta gazte-lonjakaz elkarlanean jardun zuten. ◀



Kanpomartxoko argazkiak ikusgai ditu Berbots Erandioko euskaltzaleen topaguneak. Martxoaren 20an, hainbat eta hainbat lagunek ospatu zuten euskararen festa Martiartun. Egun gozagarria akordura ekarri gura dutenek Berbots.eus webgunean dute aukera. © BERBOTS

Leioa

Genero-indarkeriaren biktimak babestuz



Udalbatzarraren aretoan izenpetu zuten koordinazio-protokoloa. © LEIOAKO UDALA

Ertzaintzagaz eta Osakidetzagaz bigarren protokoloa sinatu du Udalak, sexu-erasoen biktima izan diren emakumeenganako arreta hobetzeko.

Mari Carmen Urbieta Leioako alkateak, Javier Aldekoa Erandioko ertzain-etxeko buruak eta Mari Luz Marques Osakidetzako Uribe Kostako zuzendariak orain dela aste bi izenpetu zuten sexu-erasoen biktima izan diren Leioako emakumeenganako arreta hobetzeko erakundeen arteko bigarren koordinazio-protokoloa. Dokumentu horren helburua da indarkeria matxistari aurre egin behar dioten emakumeenganako arreta, laguntza eta koordinazioaren kalitatea hobetzea, agintari leioaztarrek azpimarratu dutenez.

Udaleko Berdintasun Arloak bultzatu du dokumentuaren izenpetzea, eta dokumentuak hobekuntza kuantitatiboa eta kualitatiboa dakar 2007. urtean Udalbatzak onartu zuenagaz alderatuta; arreta azkarra, koordinatua eta eraginkorra eman nahi die indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei. Protokolo horren asmoa adingabeen zaintza eta interesak ba-

bestea ere bada, kasu guztietan indarkeria matxista horren biktima zuzenak dira-eta, udal arduradunek azaldu dutenez.

Udalez gaindiko erakundeez gainera, udalerrian bertan, Berdintasun Arloagaz batera, Hezkuntza Arloak eta Udaltzaingoak ere bat egin dute prozesu horretan. Era berean, Bizkaiako Foru Aldundiak gizarte-laguntza eragilezat aitortzen duen Andrak elkartearen esku-hartze aktiboa nabarmendu dute agintari leioaztarrek. Alkateaz, Erandioko ertzain-buruaz eta Osakidetzako Uribe Kostako arduradunaz aparte, Juan Carlos Martinez Llamazares Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak, Enara Diez Berdintasuneko zinegotziak, Joxe Belmonte Hezkuntza teknikariak, Aitziber Saratxaga Leioako Gizarte-laguntzaileak, Ricardo Egiguren udaltzain-buruak, Jone Gurra Berdintasun teknikariak eta Ana Cespedes Andrak elkartearen ordezkariak parte hartu zuten sinatze-ekitaldian. ◀

Herritarrak eta komunikabideak, lagunarteko giroan

Apirilaren 14tik 17ra bitartean, Herriaren hezkuntza-egitasmo parte-hartzaileak hainbat jardura egingo ditu, Boulevarden ipiniko duten domoan. Horien artean, barikuan, hilak 15, «modu informalean» komunikabideak elkartzeko aukera edukiko dute herritarrek, 11:00etatik aurrera, *Prensa-kafea herritarrekin* izeneko saioan; «ikasketa-prozesuetan parte hartzen dabilen herritarrek Herrigunen bizi izandakoa kazetariakaz partekatze-ko aukera izango dute», antolatzailek azaldu dutenez. Bestalde, Ezagutzen Azoka egongo da zapatuan. ◀

info +: www.herrigune.org

San Juan jaietako kartel-lehiaketa martxan dago

Daborduko aurtengo San Juan jaietako kartel-lehiaketa martxan dauka Udalak; partaideek gura beste obra aurkezteko aukera edukiko dute, apirilaren 22ra arte, Kultur Leioan. Epaimahaiak apirilaren 29rako aurkeztuko ditu bost kartel finalistak; data horretatik maiatzaren 4ra arte izango dute herritarrek bozkatzeko aukera. Bozkak zenbatu ostean, maiatzaren 6an emango dute ezagutzera irabazlearen izena, 18:30ean, Aterpe Leioa Gaztegunean. Irabazleak 800 euro irabaziko ditu. Kartel denakaz erakusketak osatuko dute. ◀

info +: www.kulturleioa.com

Gaztelubideko txoko berria erabiltzeko erreserbak

Apirilaren hasieran zabaldu zituzten Gaztelubideko txokoak; Lamiakoko Langileria kaleko 202. zenbakiko udal-eraikinean dago. 18 urte baino gehiago dituzten leioaztarrek egin ahal izango dute txokoa erabiltzeko eskaera, udaletxeko erregistroan. Guxienez, hartu gura den data baino 15 egun lehenago eskatu beharko dute lekua gordetzea; eta gehienez, 30 egun

lehenago. Astelehen eta egun arteko lanegun batean erabili gura dutenek 31 euro ordaindu beharko dituzte; bariku, zapatu, domeka eta jaiegunetan, ostera, 112 eurokoa izango da erreserba-tasa. Horri 2 euro gehitu behar zaizkio pertsona bakoitzeko, astelehenetik barikurako bada. Gainera, 62 euroko fidantza ipini beharra dago aurretik. ◀

info +: www.leioa.net

Zapatu osoan euskaraz berba egitera deitu dute talde ugari

Apirilaren 16an, zapatuan, euskaraz egun osoz bizitzeko aukera eman gura diete leioaztarrei herriko hainbat eragilek, abenduaren 3an hasi zuten dinamikagaz segitzeko asmoz. Ekitaldi nagusia konpromiso-liburuaren ekitaldia izango da; euskararen gainean, aurton hartuko duten konpromisoa agertuko dute bertan Betiko Ikastolak, Hartzak Pilota Eskolak, Leioa Waterpolok, Artatza ikastetxeak, Lamiakoko Maskaradak, zenbait jai-batzordek eta dantza-taldeak, Berbaldun egitasmoak eta beste hainbatek. Bazkariko txartelak AEKn, udal euskaltegian eta Kopi Leioan eros daitezke, 6 euroan. ◀

Egitaraua

J.M. Barandiaran Behekoa institutuan
11:30 Euskara-eskola eta berbagune-txokoa.
12:00 Zumba-saioa.
15:00 Herri-bazkaria (paella erraldoia).
17:00 Mus arina eta mahai-jolas erraldoia.

Sakoneta kiroldegian
12:00 Eskupilota entrenamendua, euskaraz.

Plazaz plazaz
14:00 Kanta-poteoa.

Ikea Barri plazan
13:30 Konpromiso-liburuaren ekitaldia.
17:00 Dantza-tailerra.
17:00 Plazan Olgetan.
18:30/22:00 Erromeria Oxabigaz. Tartean, euskaraz ligatzeko esaldien lehiaketa.

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz

BETIKO
IKASTOLA

- 0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, askaria, zaintza.
- Eskolaz kanpoko jardura ugari.
- Ikastolen Elkarteko ikastola bakarra Leioan.

Artaza auzoa, 84. 48940 LEIOA
 94 464 23 64/94 464 33 07
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

ikastolenelkartea

KONTXI ZVAVBIZKAR
Urdaitegixa

Kalitatezko elikagaiak zure mahaian

Alangobarri 10, ALGORTA - 94 491 02 93

Egunero, 24 orduz
www.hiruka.eus

Sopela

Txosna-baimenak eska daitezke

Maiatzaren 18ra arte aukera egongo da San Pedro jaietarako txosnak eta tabernetako kanpoko barrak ipintzeko baimenak eskatzeko, udaletxean edo Sopelارين bulegoan.

Sopelako Jai Batzordeak jakinarazi duenez, daborduko zabalik dago San Pedro jaietarako txosnak eta tabernetako kanpoko barrak jartzeko eskaera egiteko epea: maiatzaren 18ra arte. Hala, interesa dutenek udaletxean edo Sopelارين bulegoan eskura ditzakete bete beharreko eskaera-orriak. Kanpoko barra eskatzen dutenek aurkeztu beharko dituzte eskatzailearen NANaren fotokopia, barraren planoak (neurriakaz eta kokalekuagaz) eta 1.500 euroko fidantza ordaindu izanaren abonua-agiria. Azken horrek establezimenduaren izenean egon beharko du. Txosnetakoek, berriaz, txosnaren neurriak eta aseguru-poliza aurkeztu beharko dituzte. Horrez gainera, txosna zein egunetan ipiniko duten zehaztu beharko diete udal arduradunei; baita zein egunetan kenduko duten ere. ◀



San Pedro jaietako antolakuntza-lanak aurrera doaz. © SOPELAKO UDALA

Padel-pistak hobetu eta skate-parkea egiteko lanak

Udalak martxoaren amaieran hasi zituen padel-pistak hobetzeko lanak; apirilaren bigarren hamabostaldian bukatzekoak dira, agintari sopeletarrek adierazi dutenez. Obra horien bitartez, padel- eta tenis-pista profesionalen zelaia aldatuko dute. Horrez gainera, jolas askotariko pisten zelaia zaharberritu egingo dute. Lanek 9.670,80 euroko (BEZa barne) aurrekontua daukate; zelaien erresistentzia, kalitatea eta iraunkortasuna bermatu gura dituzte, udal arduradunek azpimarratu dutenez.

Bestalde, skate-parkea eraikitze lanak esleitu ditu Udalak. «Laster hasiko dira obrak, baina ibilaldi luzeko proiektua izango da», agintari sopeletarrek nabarmendu dutenez. Hala ere, ez dute lanak hasteko data zehatzik baieztatu. Sopelako skate-pista Arriatera-Atxabiribil hareatzako itsaslabarren gainean dagoen orube batean eraikiko dute. ◀

Eutanasia jorratuko dute Gizarte Zinema Zikloan, zapatuan

Maiatzean amaituko da urtarrilean estreinatutako Gizarte Zinema Zikloa, baina oraindik pelikula bi daude ikusteko. Hala, zapatu honetan, apirilak 16, Valeria Golino zuzendari italiarraren *Miele* (2013) filma proiektatuko dute Kurtzio kultur etxean. Hitzordua 20:00etan ipini dute; sarrera, doan. Berlinale jaialdian Urrezko Hartza irabazi zuen pelikula horrek, eta italieraz egongo da ikusgai, euskarazko azpituakaz. Eutanasia jorratzen du *Miele* ikus-entzunezkoak. Gizarte Zinema Zikloari akabua emateko, maiatzaren 14an, Costa Gavraz greziarraren *Le Capital* filma eskainiko dute, Kurtzio kultur etxean. ◀

Nuyum elkarteak tona bi elikagai batu ditu Sahararako

Otsailaren 27an, zazpi trailer, kamio bi, furgoi bat eta lur orotarako ibilgailu bi abiatu ziren Bilbotik Tindufeko (Aljeria) errefuxiatuen kanpamenduetara; Nuyum elkarteak tona bi janari, arropa eta osasun-zein higie-ne-produtu batu zituen, udal iturriek diotenez. Horrez gainera, Daora herrixkako nagusien zentroari helarazteko arropaz, osasun-produktuez, eskola-materialaz eta oihalez betetako palet bat bidali zuten. Hala, Sopelako, Plentziako, Urdulizko eta Berangoko herritarren elkartasuna eskertu du Nuyum elkarte sopolotarrak. Saharar umeak etxean hartzeko Oporrak Bakean egitasmoa zabalik daukate orain. ◀

Itzartu elkarteak proiektzio eta berbaldi bana antolatu du

Eguen honetan, apirilak 14, genero-ikuspegiko beste zinema-saio bat eskainiko du Itzartu emakumeen elkarteak. Oraingo honetan, John Madden britainiarrek zuzendutako *El nuevo exotico hotel Marigold* (2012) pelikula egongo da ikusgai Kurtzio kultur etxean, 18:00etatik aurrera; sarrera, doan. Emanaldia gaztelaniaz izango da. Deborah Moggach-en *These Foolish Things* (2004) eleberrian oinarrituta dago filmaren gidioa. Komedia dramatiko horretan, Indiarra egingo du bidaia hirugarren adineko britainiar talde batek, Marigold hotelaren publizitateak liluratuta. Hala ere, ez dute espero zutena aurkituko.



Filmaren pasarteetako bat.

Itzartuk antolatutako ekitaldiak jarraituz, apirilaren 21ean, *Mujeres que mueven el mundo* berbaldia eskainiko du Olga del Castilok, 18:00etan, emakumeen elkartearen egoitzan. ◀

hau herikuntzatik
ander deuna batxilergora

Gatzarrine bidea, 47. 48600 SOPELA · 94 676 02 66 · 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus · www.anderdeunakastola.eus

ARTOLOZAGA
Tailerrak ANAIK
Mekanika · Karrozeria · Elektronika

Sopelan
Gatzarrine z/g
94 676 00 13
94 676 38 14
www.talleresartolozaga.com

Sestaon
Miguel Servet, 6
94 472 13 74

Jatorrizko bermea mantentzen dugu!

BOSCH
Service
Car Service

TXIBERRI
EDANTOKIA
FRONTOI PARTIKULARRA

AITA GOTZON 4, URDULIZ
94 676 07 15



LABetik atera berri

IRATXE
AZKUE REINALES
LABeko Eskumaldeako
idazkaria

Iruzurraren
gaineko iruzurrik
ez langileoi!!!

Aurrekoan, kafea garraztu zitzaidan egun-karian hau irakurri nuenean: «Eusko Jaur-laritzak Ertzaintzarengana jo du RGIren iruzurrak ikertzeko». LANBIDE berak aitortu duenez, 2015ean % 0,3koa izan da diru-sarrerak bermatzeko errentan (RGI) eta etxebizitzarako diru-laguntza osagarrietan izandako iruzurra; guztira 35,8 milioi ingurukoa. Ezer gutxi arrain handien iruzurrekin konparatuta. 2015ean iruzur fiskala % 25ekoa izan zen, 2.500 milioi-koa; errenta altuek, profesionalak eta enpresariak egindako iruzurrari buruz ari gara, eta horren kontra borrokatzeko zer egiten dute? Enpresariak obra eta zerbitzuetako kontratuak eta behin behineko kontratuak modu ilegalean erabiltzen jarraitzen dute, kontratu mugagaberik egin gabe, langileen prekarietatea eta bazterketa soziala mantentzeko. Sinatutako kontratu berrien %90 behin behineko kontratuak dira. 2015ean, % 8,7 igo zen lan-istripuen kopurua; prekarietatea, iruzurra kontratazioan eta azpi-kontratazio deskontrolatua dira lan-istripuen arrazoi nagusiak. Aurten, 16 dira Euskal Herrian bizitza galdu duten langileak. Ez gara oso azkarrak izan behar datuak interpretatzeko; denok dakigu batuketak eta kenketak egiten. Baina ez dugu Ertzaintza ikusiko enpresarien edo iruzurgileen etxeak eta lantokiak bigilatzen. Egia eta errealitatea bakarra da; esaten dutenaren kontra, iruzur fiskala, prekarietatea eta bazterketa soziala mantentzea interesatzen zaie instituzioetan daudenei, beharrezko direlako sistema mantentzeko, eta beharrezko direlako Josu Jon Imazena bezalako soldata mantentzeko: 2.864.000 €. Hori pagotxa! Beraz, langileoi dagokigu horien kontrako mekanismoak jartzea eta borrokatzea! ◀

Berango

Berangoko udalekuetan izena emateko aukera, hilaren 28ra arte

Urtero legez, Berangoko Udalak neska-mutilentzako udalekuak antolatu ditu udarako, ekainaren 27tik uztailaren 22ra arte, hain zuzen ere. Horietan parte hartu gura dutenek alde aurretik izena eman beharko dute, apirilaren 18tik 28ra arte. Horretarako, Berangoetara edo Santa Anara jo beharko dute. Udalekuak adinaren arabera banatuta egongo dira: udako Ludotxiki, 2013 eta 2011 artean jaiotakoentzat; udako Ludoteka, 2010 eta 2008 artean jaiotakoentzat; udako Ludokluba, 2007 eta 2002 artean jaiotakoent-

tzat; eta Lekeition udalekuak, 2002 eta 2004 urteen bitartean jaiotakoentzat. Lekeitiokoa ekainaren 24tik 26ra bitartean izango da. Gainerako udalekue-takoek hainbat txango egingo dituzte. Berbarako, Ludotxikikoak Izenadubara (Mungia), Lurraskara (Ajangiz) eta Karpin abenturara (Karrantza) joango dira; Ludotekakoak Cabarcenora (Kantabria) eta Gamarrako (Gasteiz) igerrilekue-tara joango dira; eta Ludoklubakoak, adinaren arabera, Fadurara (Getxo), Forestal Parkera (Kantabria), Gamarrara (Gasteiz) eta Sobron aben-

turara (Araba), besteak beste. Udaleku bakoitzaren prezioa 120 eurokoa izango da, Berangon erroldatuta daudene-tzat; gainerakoek 240 euro ordaindu beharko dituzte. Lekeitioko udalekue-tarako, berriz, 50 euro eta 100 euro ordaindu beharko dituzte.

Ordainketak egiteko azkenengo eguna ekainaren 6a izango da. Arduradunek azaldu dutenez, programa guztiak euskaraz izango dira, eta Berangon erroldatutako umeek izango dute lehentasuna, leku-kopurua mugatua izango baita. ◀

Martxan ipini dute daborduko Eskolara Oinez egitasmoa

Azken da dagoeneko Eskolara Oinez proiektua Berangon. Ikasturte osoan, egitasmoaren nondik norakoak zehaztu eta bide egokienak zeintzuk izan zitezkeen erabaki ostean, joan den hilaren 11n, astelehenean, hasi ziren egitasmo horregaz. Hala, Berango-Merana ikastetxeko neska-mutiek joan-etorriak taldeka egiten dituzte, oinez, haien etxeetatik eskolaraino. Proiektu horren helburua da parte-hartzaileentzako onuragarriak diren ibilbide «seguruak» sortzea. Era berean, ibilbidean zehar, ikasleek euren arteko harremanak areagotzen dituzte, eta jarduera fisikoa ere egiten dute. Halaber, ingurumenraren jasangarritasunerako eta ikasleen osasunerako onura han-



Eskolarako bideak oinez egiten dituzte.

diko praktika izateaz gainera, Eskolara Oinez bezalako proiektuek eragin positiboa dute ikasleen errendimenduan, mota horretako egitasmoen inguruan orain arte egindako hainbat ikerketaren arabera. ◀

Sagardotegira irteera egingo dute hilaren 16an, zapatuan

Berangoko auzotarrak sagardotegira joango dira zapatu honetan, hilak 16. Hasiera batean, otsailaren 4ra arte izena emateko aukera bakarrik egon bazen ere, oraindino ere apunta daiteke irteera horretarako. Hala, izena ematen duten guztiek Sagardo Etxera bisita gidatua egin, eta Petrítegi sagardotegian bazkaltzeko aukera izango dute. Ondoren, kafea hartu eta Berangora bueltatuko dira, 20:00etarako. Umeek, berriz, Eureka Zientzia Museoa bisitatuko dute, gurasoak sagardotegian dauden bitartean, eta, ondorioz, bazkaria etxetik eroan beharko dute. Udallerrian erroldatutakoek 30 euro ordaindu beharko dituzte; jubilatuek, oster, 20 euro, eta, umeek, ordea, 3 euro. ◀

Barrika

Udal aurrekontua onartu du Barrikako Udalak, eta inbertsio gutxiago izango du aurton

Barrikako Udalak 2016rako udal aurrekontuak onartu zituen azkeneko osoko bilkuran, EAJren eta Ibarrikaren aldeko botoakaz (5); Orain (1) eta EH Bilduk (3) kontra bozkatu zuten. Guztira, 1.567.755 euroko aurrekontua onartu zuten, 2015ekoa baino 1.000 euro gutxiagokoa, EH Bilduk gogoratu zuenez. Langileen gastua %13 (42.352 euro) eta ondasun eta zerbitzuetarako gastua %7 (50.647 euro) handitu dituzte, eta inbertsio errealerako dirua %45 (- 177.898 euro) murriztu dute, 2015eko aurrekontuagaz alderatuz gero. Hori horrela, aurreko urteetan izandako diru-sarrerak ber-

tsuak izan arren, inbertsio errealerako diru gutxiago bideratuko dutela salatu du EH Bilduk. Zehaztu dutenez, 5.203 euro bideratuko dituzte Goierriko udal artxiboa egokitzeko, eta 10.000 euro udal aldizkari berria ekoizteko, besteak beste.

Udalak 412.000 euroko soberakina du. EH Bilduren arabera, EAJ eta Ibarrikak ez dute diru hori inbertsioetarako erabili gura izan. Izan ere, koalizio abertzaleak jakinarazi duenez, gobernu-taldeak «denborak aurrera egin ahala» erabakiko du zeintzuk izango diren inbertsioak egiteko «lehentasunak». Gogoratu dutenez, 2015ean Zea-



EAJk eta Ibarrikak alde bozkatu zuten.

rreta, Larretxe eta Lepola inguruetako saneamendu lanetarako erabili izan zen dirua soberakinetatik finantzatu zuten, besteak beste. ◀

Plentzia



Irabazi asmo bako elkarteei eta eragileei utziko dizkiete lokalak.

Doan utziko ditu Udalak bere gelak

J oan den martxoaren 17ko osoko bilkuran, Udalaren lokalen erabilpena herri-elkarteei uztea arautzen duen ordenantzari behin-behineko onespina ematea onartu zuen Plentziako Udaltzainak aho batez. Hasiera batean onartutakoaren arabera, interes publikoa izan dezaketen ekintzak egiten laguntzeko asmoz, Udalak bere lokalak doan erabiltzeko aukera emango die udalerriko elkarteei eta eragileei. Hala, araudi berri horren helburua da erraztea irabazi asmo bako elkarteei eta eragileei euren ekimenak egitea. Udal lokal bat erabili gura duten eragileek hainbat baldintza bete beharko dituzte. Udalak behin-behinean adostu ditu, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (BAO) argitaratu dira. Aurreikusitakoaren arabera, lokalak urtebetez alokatuko zaizkie era-

gileei, doan. Lagatze horiek urtez urte berritu ahal izango dira, gehienez 3 urtera arte. Denbora-tarte horretan, eragileek hainbat eskubide eta betebeharrak izango dituzte, argitaratutako BAO behin-behinean zehaztu dituztenak. Ordenantza behin betikoa izango da BAO argitaratu eta 15 egunera.

Diru-laguntzen banaketa

Norgehiagoka erregimenean (lehiaketa eginez) emango diren diru-laguntzak banatzeko prozedura eta balorazio-irizpide berriak behin-behinean onartu zituen Udaltzainak martxoko osoko bilkuran. Horiek ikusgai daude daborduko udaletxean, hilaren akabura arte. Azaldu dutenez, epe hori amaitutakoan, erreklamaziorik aurkeztu ezean, erabakia behin betiko onartuko da. ◀

info+: www.plentzia.eus

Gorliz

Udaltzainek atxilotu izana «bidegabea» zela salatu dute

Udaltzain bigaz izandako «liskarra» eta horren ondorioz jasotako isuna salatu du Manolo Bilbao gorliztarrak. Bilbaoren berbetan, udaletxeko plazaren ondoko errepidea gurutzatu ostean, auto bat bere ondotik igaro zen, «zenti-metro gutxira». Kotxeari begiratu, eta udaltzainen autoa zela ikusi zuen. Bilbaok azaldu du barruko udaltzain biak «keinuka» zebilzkiola: «nondik igaro behar nintzen esaka, baina nik esan nien ondo gurutzatu nuela, keinuka ere bai». Une horretan, udaltzain biak «agirika» egin zioten, eta Bilbaok ezer galdetu barik, bertatik alde egitea erabaki zuen, arazoak saihesteko. Hala ere, polizia gizonari dokumentazioa

eskatu zioten, udaltzainetako batek eskutik heltzen zion bitartean, «esku-burdinak jartzeko». Une horretan, Bilbaok plaka-zenbakia erakusteko eskatu zien, baina udaltzainek uko egin zioten erakusteari, «zuri ez dizugulako ezer ere eman behar» argudiatuz. Hala, eztabaida baten ostean, poliziek atxilo eroan eta, ordu eta erdi polizia-etxean egin ostean, 600 euroko isuna ezarri diote gizonari, «desmen egitea eta identifikatzeari uko egitea» egotzita, besteak beste. Bilbaok salaketa ipini du Ertzain-etxean, eta jakinarazi duenez, ertzainak «nazkatuta» daude «egoera horiekaz», mota horretako kexa gehiago heldu ei zaizkielako. ◀

Kandela Eguna ospatuko dute laugarrenez zapatuan

Dena prest dago Kandela Egunerako. Hilaren 16an, zapatuan, euskal preso politiko eta iheslarien alde kandelak isiotuko dituzte laugarrenez Plentziako Jai Alai frontoian. Hala, adin guztientzako egitaraua prestatu du egun horretarako Kandelaria Kultur Elkarteak. Goizeko 11:00etan atea zabaldu, eta goiz osoan ohe elastikoak, herri-kirolak eta tailerrak egongo dira. Gero, 12:30ean ipuin-kontalaria egongo da, eta 14:30ean herri-bazkaria egingo dute. Ostean, bideo-emanaldia eskaini, eta poteoa egingo dute herriko kaleetan. Azkenik, 23:00etan, MC Onak eta DJ Elunto izango dira gaztetxean. ◀

Baliteke maiatzerako Hozkailu Solidarioa martxan egotea

Hozkailu Solidarioa ekimenaren hultzatzaileagaz batu ostean eta elkartasun-hozkailua noiz eta non ipini erabaki baino lehenago, herritarrak sentsibilizatu gura izan ditu Plentziako Udalak. Horretarako, udal ardura-dunak 15 auzotar ingurugaz batu ziren hilaren 8an, Goñi Portalen. Ardura-dunek jakinarazi dutenez, proiektuak oso harrera «ona» izan du; hori dela-eta, Hozkailu Solidarioa ezartzeko proposamena aurkeztuko dute hurrengo osoko bilkuran. Hala, maiatzean egitasmoa martxan jartzea aurreikusiko dute, «udalerririk solidarioago bat izateko, kooperazioa lehiakortasunaren ginetik egoteko». ◀

Plentzia eta Gorlizko GEDk herri-bilera egingo du barikuan

Urteko bigarren lauhilekoan sartzeko egun gutxi falta dira, eta, horrenbestez, Gorlizko eta Plentziako Gure Esku Dago taldeko kideek 2016rako prestatutako egitasmoa aurkeztuko diete udalerririk bietako herritarrei. Horretarako berbaldira aurkeztuko dute hilaren 15ean, barikuan, Plentziako Goñi Portal kultur etxean. Horretan, irailtik hona egindako lan-estrategia azalduko dute, eta hementik eta uda bitartean zer egiteko asmoa duten ere jakinarazi gura dute. Era berean, datozen urte biei begira ere ipiniko direla azaldu dute, «urrunagoko helburuak begietsita». Berbaldira aurkeztuko horretarako hitzordua arrastiko 07:00etan ipini dute. ◀

info+: www.gureeskudago.eus



Maratila

ITZIAR LARRAZABAL GARDEAZABAL
ELAko eskualde-arduraduna

Estatalizazioak larriki kalte egiten die lan-baldintzei

Patronalen estrategiak helburu argi bat du: erreformei ahalik zuku gehien ateratzea etekin ugaltzeko, pobretutako lan-baldintzen kontura. Legeak honetarako eskaintzen dituen abantailen artean negoziazio kolektiboaren estatalizazioa dago. Horretarako bidea erraza da: patronalak hitzarmen negoziazioa blokeatzen du beren iraunaldia gal dezaten, ultraaktibitatea amaitzean; aski du denbora igarotzen uztea hitzarmen estatalk indarrean sar daitezen, eta hauek askoz okerragoak dira.

Patronalari babes betea ematen diolarik helburu hauek errazteko, bestalde, Eusko Jaurritzari ez zaizkio bat ere axola estatalizazio estrategiaren eragin lazarriak.

Estatu mailako sindikatuek eta CEOek erabaki dute probintzia mailako sektore-negoziazioa deuseztatzea edo hustu egingo dutela. Azken hilabetetako adibide batzuk hauek dira: Ostalaritza sektorerako Lan-Akordioak; Madrilen sinatutako Sukaldaritza Hitzarmena; Lorezaintza Hitzarmena; Ile-apaindegietako Hitzarmena; Drogeria, lurrindegia eta belar-dendetako Hitzarmena; Estatuko Merkataritzarako Akordio Markoa; Metalgintzako Hitzarmen estatala; Kontserbagintza sektorea; Eraikuntza; eta Pertsona dependenteentzako Arreta Zerbitzuak.

Madrilen Zapateroren erreformaz baliatzen dira eragozteko euskal gehiengo sindikalek erabakitzea non eta zer negoziatu nahi duten. Hitzarmen estataltatik Euskal eremuan negoziatzea galarazten da.

Ez dago autogobernurik negoziazio kolektiborik gabe; ez dago autogobernurik lana duintzen duten hitzarmenak indargabetuta.

Alternatiba badago. ◀

info+: www.mrfundazioa.eus/eu/dokumentazio-zentrua/nazio-batzordearen-agiriak/negoziazio-kolektiboaren-estatalizazioa/

Urduliz

Eztabaidatu ezinik

Plataformaren mozioa ez dute eztabaidatu azken osoko bilkuran; alkatearen ustez urgentzia-izaerarik ez zuelako.

Urdulizko Udalak ez du Uribe Ospitalea Plataformaren mozioa eztabaidatu azken osoko bilkuran, Javier Bilbao alkateak idazkiari urgentziazko izaerarik hartu ez ziolako. Mozioa Denok Batera eta EH Bildu alderdiek aurkeztu zuten, auzokideen plataformaren izenean. Auzotarren plataformakoek alkatearen erabakia deitoratu dute. Idazkiak hau eskatzen zuen: Udalak izaera «negoziatzailea» hartzea, dagokien instituzioen artean, «informazioa eta analisiak» biltzeko ospitale berriak eragin ditzakeen «arazoan» inguruan. Alkatearen erabakiaren aurrean, Denok Batera



Ospitaleak eragingo dituen «aparkatzeko arazoak» herritarrek adostea eskatu du EH Bilduk.

eta EH Bildu alderdiek ohartarazi dute ez-ohiko osoko bilkura deituko dutela, «inplikazioa eta erantzunak» jasotzeko.

TAOren erregulazioa

Urdulizko EH Bilduk ohartarazi duenez, ospitale berriak hartuko dituen

bisitei aurre egiteko asmoz, Udalak aparkaleku bat eraiki eta TAO sistema ezarri gura ei du. Horren aurrean, koalizio abertzaleak «ospitaleak eragingo duen aparkatzeko arazoa» herritarrek adostu beharrekoa dela adierazi du, besteak beste. ◀

Gure Esku Dago-k herri-bilera egingo du hilaren 15ean

Urdulizko Gure Esku Dago taldeak bilera irekia egingo du barikuan, hilaren 15ean. Hitzordua kultur etxean ipini dute, arrastiko 07:00etan, eta, jakinarazi dutenez, eragile guztiak eta herritar denak gonbidatuta daude bilera. Batzarrean, taldearen etorkizunerako bidea jakinaraziko dute. ◀

Bertso-saioa Txiberrin, zapatuan

Bertsoek Txiberri edan-lekua hartuko dute zapatu honetan, hilaren 16an. Izan ere, Urdulizko Bertso Eskolak egundoko bertso-saioa prestatu du egun horretarako; hala, iluntzeko 08:00etatik aurrera, Larrabetzuko Malen Amenabar eta Gamizeko Ibon Larrabal Inazio Vidal leioztarragaz eta Aitor Esteban urduliztarragaz ibiliko dira bertsotan, Urtzi Oleaga laukiztarra izango dute gai-jartzaile. ◀

Uribe Kosta

Bilboko manifestazioan parte hartzera deitu dute preso ohiek

Apirilaren 17an, domekan, Nazioarteko preso politikoen eguna izango da. Hori dela eta, egun horretan bertan, «Amnistiaren norabidean, preso eta iheslariak etxera» goiburuz, nazio-manifestazioa egingo dute Bilbon, 12:00etatik aurrera, Kasillatik abiatuta.

Hala, horren alde egin, eta horretan parte hartzera deitu dute eskualdeko hainbat preso ohiek: Barrikako Txema Aginagak eta Patxo Zabalak; Berangoko Jon Aldatz, Benito Arana, Juanito Carbajal, Jose Ignacio Etxebarria, Iñigo Fernandez, Polentzi Gonzalez, Borja Gutierrez *Bakerito*, Lander

Labajo, Mentxaka Musatadi, Maribel Prieto, Josu Rodriguez, Jagoba Terrones, Pedro Terrones eta Juan Mari Tokero; Getxoko Mitxel Sarasketa, Iñaki Gonzalo, Danel Ansoategi, Manu Bengoetxea, Imanol Beristain, Apolinar Bilbao, Mikel Egiluz, Iñaki Elorriaga, Irune Etxebarria, Jose Luis Franco, Gotzon Garamendi, Gorka Garcia, Jacinto Lastra, Iñaki Legarreta, Aimar Lertxundi, Juan Ignacio Sanchez, Arantza Urdanpilleta, Juan Jose Vega, Ramon Maguregui, Jon Bidea, Julen Aresti eta Manu Idarragak; Leioako Edorta Sainzek; Gornizko Xabier De La Mazak eta Plentziako Bingen Gorritxok. ◀

SAT Norte enpresaren kontra, erreklamazio ugari eskualdean

Mankomunitateko Kontsumitzaileraren Informaziorako Udal Bulegoak ohartarazi duenez, azkenaldian erreklamazio ugari aurkeztu dabilta, etxetresna elektrikoak konpontzen dituen enpresa baten kontra, Norte / SAT Norte enpresaren kontra, hain zuzen ere. Azaldu duenez, enpresa horretako langileak erabiltzaileen etxeetara joaten dira konponketak

egitera. Bertan, 80 eta 180 euro artekoak kobratzen dizkie esku-lanaren kontzeptuan edo ordezkoko pieza bat erosteko aurrerapen moduan. Pieza eskatu behar dutela esan ohi dute, eta jaso bezain laster konponduko dutela. Hala ere, antza denez, hori ez dute betetzen, eta bezeroak galdu egiten du ordaindutako zenbatekoa. ◀

info+: www.uribekosta.eu

Igerileku bateratua gura dute Gorniz, Lemoiz eta Plentzian

Busti Gaitzen auzotarren plataformak hiru udalerrien artean igerileku publiko bat kudeatzea proposatu du.

Gorniz, Lemoiz eta Plentziako herritarrek urteak darozte igerileku publiko bat aldarrikatzen. Hala ere, hiru herriko udalek proiektu hori behin eta berriro baztertu behar izan dute, hori gauzatzeko bideragarritasunik ez zegoelakoan. Hala eta guztiz ere, Busti Gaitzen plataformaren arabera, hiru udalek batera kudeatuz gero, igerileku publiko desiratu hori martxan ipintzea bideragarria izango litzateke. Hori horrela, hiru udalerririk horietako auzokideen babes bat guran, Busti Gaitzen plataformako kideak hil osoa darozte egitasmo horren aldeko sinadurak bartzuten. Horretarako, Gorniz, Lemoiz eta Plentziako hainbat dendaren laguntza izan dute, eta joan den hilaren 12an, martitzenean, proiektuaren aldeko azkenengo izen-abizenak jaso zituzten:

«jendearen babes izugarria izan da; erantzuna oso ona izan da». Orain, batutako atxikipen guztiak zenbatzeko ordua da; ondoren, izen-abizen horiek guztiak egitasmo horren beharra azaleratzeko. Horretarako, plataformako kideek jakinarazi dutenez, bilera bat eskatuko diote Arantza Etxebarria Gornizko alkateari, «proposamena helarazteko eta udalerririk guztietatik jasotako babesagaz nolabait indarra erakusteko». Izan ere, auzokide horien arabera, Gornizek du hiru udalerrietatik «biztanle gehien», eta, beraz, Gornizko Udalaririk egokitu beharko litzaiotke proiektuaren abangoardian egotea.

Igerileku publikoa aldarrikatzeaz gainera, Busti Gaitzen plataformak herritar denen bizi-kalitatea hobetu gura du. Horretarako, hiru udalerririk auzokideen iritzia eta beharriak jasotzeko prest daudela jakinarazi dute plataformako kideek. Berbarako, hainbat bizilagunek eskolan goiztiarren gela baten beharra helarazi diete daborduko, plataformako kideek jakinarazi dutenez. ◀



ALBEko bertsolariek Bizkaiko Bertsolari Txapelketari ekin behar izan diote eskualdeko txapelketaz ia indarberritu barik.

Apirilak 17, domeka

18:00 Bermeoko Kafe Antzokian: Daniel de Miguel AVECILLA eta beste bost bertsolari.

Apirilak 23, zapatua

17:30 Astrabuduan: Arrate ILLARO, Paule LOIZAGA, Aitor ESTEBAN eta beste 3 bertsolari.

Apirilak 24, domeka

17:30 Ondarroako Beikozinin: sei bertsolari.

Apirilak 30, zapatua

17:30 Derioko Gurean: Itxaso PAIA, Beñat VIDAL, Imanol URIA eta beste bost bertsolari.

Maiatzak 7, zapatua

17:30 Sodupeko kultur etxean: Josu LANDETA, Peio ARONDO eta beste lau bertsolari.

Maiatzak 8, domeka

17:30 Orozkoko Donibanen: Joanes IGEREGI, Ekaitz LARRAZABAL eta beste lau bertsolari.

Maiatzak 15, domeka

17:30 Arrigorriagako Lonbon: Galder BILBAO, Unai MENDIGUREN eta beste lau bertsolari.

Maiatzak 22, domeka

17:30 Faduran: Inazio VIDAL + beste 5 bertsolari.

Bizkaikoaren konkistara!

Bizkaiko Bertsolari Txapelketa eraberritua hasi da aurten. Udabarriko Faseak ordezkatu du eskualdeko txapelketek BBTra sailkatzeko betetzen zuten funtzioa.

Peru Vidal Gurrutxaga leioz-tarrak irabazi zuen pasa den domekan Berrizen jokaturako BBTreren Udabarri Fasearen lehenengo kanporaketa. Halere, Vidal oraindino ez dago Udazkeneko Faseako sailkatuta. Lortutako 178,25 puntuek horretarako eskubidea emango dioten oraindino ikusteko dago. Ia ziurtzat eman daiteke, aldiz, Mikel Galartza Idirin Leioan bizi den santutxuerra ez dela

hurrengo fasera pasatuko, ezusteko handirik ezean, Berrizen 146,25 puntu egin eta bosgarren geratu ostean.

Denera, 56 bertsolarik parte hartuko dute Udabarri Faseko bederatzai saioetan; haietatik 15 uribekostarrak dira. Ohi den legez, eskualdeko bertsozaleek izango dute eskualdetik irten barik bertsoez gozatzeko aukera, apirilaren 23an eta maiatzaren 22an, hurrenez hurren, saio bana izango delako Astrabudu-

ko Josu Murueta kultur etxean eta Fadura-ko kiroldegian. Azken saio horren ostean jakingo da zeintzuk diren Udagoieneko Faseko bost kanporaketetarako sailkatu diren 30 lagunak. Fase horretan, kanporaketa bakoitzeko irabazlea zuzenean pasatuko da hurrengo fasera, eta gainerakoak, puntuazioaren arabera. Aurretik Bizkaiko Txapelketaren batean finalista izan direnek kanporaketa-fasean sartzeko eskubidea daukate; egoera horretan dago, adibidez, Xabi Paya.

Finalurrekoetan 18 bertsolari izango dira. Horren hiru saioetako irabazleak zuzenean pasatuko dira finale-

ra, eta gainerakoak, puntuen arabera. 2014ko Bizkaiko Txapelketako finalis-tek, tartean Fredi Paia txapeldunak eta Jone Uriak, finalurreko fasean sartzeko eskubidea daukate. Azkenik, finalean, zortzi bertsolari lehiatuko dira.

Ikastaroa

Bitartean, Bizkaiko Bertsozale Elkartek bertso-epaile izateko ikastaroa antolatu du, doan, Algortako Aldai patronatuan. Apirilaren 20an, Joseba Santxok emango du ikastaroa, 18:00etatik 20:00etara. Izen-ematea hilaren 18ra arte egin daiteke.

izen-ematea: bizkaikotxapelketa@bertsozale.com.

Kultur Leioa, dantzetan blai apiril honetan

Pasa den apirilaren 7an, *Imbermoves. Espazioen konkista mugimenduaren bidez* izeneko argazki-erakusketak zabaldu zion Kultur Leioako atea Dantzaren Nazioarteko Egunaren harira antolatutako programazioari. Elias Agirre artistaren lanak maiatzaren 8ra arte egongo dira ikusgai. *Imbermoves* autorretratu-proiektu bat da. Bidaietan, argazkiak egiten die Agirrek modu iragankorrean hiri-arkitekturei, altxor naturalei eta gorputzari harreman sinbiotikoa izatera gonbit egiten dioten lekuei ere. «Espazio aldakorren eta gorputz geldigaitzaren arteko solasaldiak, haietan esku hartzean, esanahi berriak

hartzen dituzten lekuak konkistatzeko borroka islatzen du, non arriskua inplizitua den», dio artistak. Bost kontinenteetako hainbat kokapen dira protagonista «konkista» horretan.

Bestalde, apirilaren 22an, Igor Calongek zuzendutako Cielo Raso konpainiaren txanda izango da, *Tormenta* ikuskizunagaz. Hilaren 24an, Entremans galiziar konpainiak *Xoga* ikus-entzunezko lan didaktikoa eskainiko du, 3 urtetik gorako umeentzat. Apirilaren 29an, Dantzaren Nazioarteko Eguna hartuko dute Leioan, *Dantzaria* ikuskizunagaz; flamenkoa eta euskal dantzak batzen ditu Andoni Aresti Dantza Eskolaren lanak. ◀

Miren Agur Meabe, UKITXek gonbidatuta



Miren Agur Meabe. PERU IPARRAGIRRE - URIOLA

Uribe Kostako Irakurzaleen Txokoak Miren Agur Meabe idazle lekeitiarra gonbidatu du, orain dela hamar urte kaleratu zuen *Urtebete itsasargian* liburuaz berba egiteko. Hitzordua datorren egunean izango

da, apirilaren 21ean, 19:30ean, Algortako Telletxe Plazako karpan, liburu-azokaren barruan. Sarrera doakoa izango da. Egizu Getxo Euskaldun elkarte-antolatzaileak ohartarazi duenez, liburuak «oraindik ez baduzu irakurri, gogoratu Getxoko liburutegietan maileguan har dezakezula, eta Irakurri, Gozatu eta Oparitu egitasmoaren abantailak aprobetxatu!». Izan ere, ekimen horren bidez, euskarazko liburuak erostean %35eko deskontuaz goza daiteke.

Meabek Euskarazko Haur eta Gazte Literaturako Euskadi Saria eta Liburu gaztea Saria irabazi zituen *Urtebete itsasargian* liburuari esker. ◀

hirukagenda

Uribe Kostako astekarria

2016ko apirilaren 14tik apirilaren 20ra arte



hiruka.eus

Apirilaren 21ean *Shane Macgownanen gibela* eskainiko dute Unai Elorriagak eta Gibelurdiñek musika-taldeak.



BILBO

Loraldiak eskualdeko Ordezkarriak izango ditu

Apirilaren 9an abiatu zen Loraldia udaberriko kultur jaialdia Bilbon; hirlaren 24ra arte hamaika ekitaldi egongo dira. Horien artean, astelehenean, apirilak 18, *Irrintzi* izeneko ikuskizuna eskainiko du Organik dantzatalde getxoztarrak. Euskal tradiziozko irrintzia abiapuntuztat hartuta, dantzagarikideko obra sortu du Natalia Monje zuzendariaren konpainiak.

Bilboko saioa 19:30ean izango da, Campos antzokian; daborduko sarrerak 10 euroan salgai daude.

Apirilaren 21ean, berriz, Algortako Biotz Alai abesbatzagaz kantatuko du Donapaleuko (Behe Nafarroa) Anne Etchegoyen abeslariak, Arriaga antzokian. Emanaldia 20:00etan izango da; sarrerak 20 euroan daude salgai. Etchegoyenen azken lana, *Les*

Voix Basques, urrezko diskoa izan da Frantzian, 80.000 ale baino gehiago saldu ditu-eta.

Azkenik, apirilaren 22an, berriz, *Shane Macgownanen gibela* ikus-kizuna eskainiko dute Unai Elorriaga idazle algortarrak eta Gibelurdiñek musika-taldeak, Arriagan, 21:00etatik aurrera. Sarrerak 5 euroan daude. ◀

info+: www.loraldia.eus

URDULIZ

Euskara hutsezko umorezko bakarrizketa entzungai, kultur etxean

Umore Gauak bueltan dira Urdulizen; oraingoan, sarkasmoa erabiliz, euskararen erabilerraren inguruko hausnarketa egitera gonbidatuko gaitu Oihan Vega aurkezle, irrati-esatari eta musikariak, zapatu honetan, apirilak 16. *Zer-gatik praktikatzen duzu sexua?* izenburuko saioa 21:00etan izango da, kultur etxean. Sarrerei dagokienez, 6 euroan egongo dira salgai. ◀



2016/04/14 - 2016/04/15 - 19:30

Mendi Astea
Kultur Leioa | Leioa

Hainbat dokumental proiektatuko dituzte. Gaztelaniaz. Sarrera, doan (gonbidapenagaz). Informazio gehiago: www.leioamenditalia.com

2016/04/14 - 18:00

El nuevo exótico hotel Marigold pelikula
Kurtzio kultur etxea | Sopela

Izartu emakumeen elkarteak antolatuta. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2016/04/14 - 19:00

Gestion a la vasca liburuaren gajneko berbaldia



© LUMALTIK HERRIAK

ERANDIO

EZLNren gaineko erakusketa eta berbaldia izango dira

Lumaltik Herriak elkarteko Javier de la Herranek *Chiapas, los cam-pamentos por la paz y el EZLN* berbaldia emango du apirilaren 21ean, 19:30ean, Astrabuduiko Josu Murueta kultur etxean. Bess-talde, hilaren 18tik 29ra bitartean, *Ley revolucionaria de las mujeres* argazki-erakusketa egongo da ikusgai, bertan. ◀

2016/04/16 - 09:00

Armintzarako irteera
Telletxe plaza (Algorta) | Getxo

Algortako Gazteak taldeak antolatuta. Parte-hartzea, libre.

2016/04/16 - 11:00etatik aurrera

IV. Kandela Eguna
Jai Alai pilotalekua | Plentzia

Preso eta iheslari politikoan aldeko jaialdian, ipuin-kontalaria, herri-bazkaria, bideo-emanaldia, poteoa eta kontzertuak (Mc Onak eta DJ Elepunto, Danontzat gaztetxean) egongo dira.

2016/04/16 - 13:00

Erandioko Musika Eskolako

Umeen Egunean, antzerkia ikusgai

Barikuan, apirilak 15, Umeen Eguna ospatuko du Kultur Etxeak. Hala, *Ezer ez da dirudiena* antzezlana eskainiko du Patata Tropikala taldeak. Saioa 18:00etan izango da, Ander Deuna kultur aretoan (Goierri); sarrera, doan. ◀

Udaberri Festa, Meñakozen ekimenez

Meñakoz Kultur Elkarteak Udaberri Festa antolatu du domeka honetarako, apirilak 17. Hori dela-eta, 12:30etik aurrera, pandero-joleak, euskal dantzak, eta dantza-plaza herrikoia egongo dira, udaletxeko plazan. ◀

Ipuinak dantzan, Apika taldeagaz

Domeka honetan, apirilak 17, *Ipuinak dantzan* izeneko ikuskizuna eskainiko du Apika taldeak, Berango Antzokian. Umeentzako emanaldia euskaraz izango da, 18:00etatik aurrera. Sarrerak euro batean egongo dira. ◀



© Iñaki Esteban. Elkarreagutuz zuten artista bik, Tolosan (bizkaitu), Euzkizia). © BLIZZARD CONCEPT

Zirku-ikuskituzun berria, ikusgai

Lehenengo aldiz, Euskal Autonomia Erkidegora egingo du bidaia Blizzard Concept zirku-bikote frantziarrak. Kultur Leioan, *Opera pour sèche-cheveux* ikuskizuna aurkeztuko dute Antoine Terrieux-ek eta Julien Mandier-ek; clown, magia eta objektuen manipulazioa batzen dituzte. ◀

Noiz: Apirilak 16, zapatua.

Ordua: 20:30

Non: Kultur Leioako entzungela.

Sarrera: 10 euro (helduak) / 5 euro (26 urtera artekoak). 7 urtetik gorakoet begirako ikuskizuna.

EH Biduk antolatuta. Igor Meitxor liburuaren egileak berba egingo du. Gaztelaniaz. Doan.

2016/04/14 - 19:30

Euskalkiak.eus webgune berriaren aurkezpena

Azabarri kultur elkarte (Algorta) | Getxo
Koldo Zubazo hizkuntzalari elbarrarak aurkeztuko du. Euskaraz. Sarrera, doan.

2016/04/14 - 19:30

Piano-kontzertua

Udaletxeko azpiko aldea | Barrika

Gertuko auzokideen elkarteak antolatuta. XIX. mendeko Edvard Hagerup Grieg pianista eta kompositore norvegiararen piezak interpretatuko dituzte. Sarrera, doan.

2016/04/14 - 19:30

EAJren ez-ohiko batzarra

Altzagako batzokia | Erandio

Jelkideentzat bakarrik.

2016/04/14 - 20:00

Bringas pop-taldea

West Side taberna (Itzubatzeta) | Getxo

Getxo Zuzenean ekimenaren barruan. Doan.

2016/04/15 - 19:00

Plentzia eta Gorilzko GEDren herri-bilera

Goñi Portal kultur etxea | Plentzia

Egitasmo berrien aurkezpena egingo du Gure Esku Dago-k. Sarrera, doan.

2016/04/15 - 19:00

Urdulizko Gure Esku Dagoren herri-bilera

Kultur etxea | Urduliz

Egitasmo berrien aurkezpena egingo du Urdulizko GEDren taldeak. Sarrera, doan.

2016/04/16 - 11:30etik aurrera

Euskaraz Bizi Eguna

Hainbat leku | Leioa

Egun osoan, musika, jolasak, herri-bazkaria eta beste hainbat jarduera egongo dira. Informazio gehiago: egunoneuskarazleioa@gmail.com

2016/04/16 - 20:00

Bertso-saioa

Txiberri taberna | Urduliz

Urdulizko Bertso Eskolak antolatuta. Bertsolariak: Malen Amenabar (Larrabetzu), Inazio Vidal (Leioa), Ibon Larrazabal *Larra* (Gamiz) eta Aitor Esteban (Urduliz). Doan.

Bandako ikasleen kalejira

Altzagako kaleetan | Erandio

Erandioko Udal Musika Eskolaren 25. urteurrena ospatzeko emanaldia.

2016/04/16 - 18:30

Vedruna musika-eskolako ikasleen kontzertua

Astrabuduko kultur etxea | Erandio

Erandioko Udal Musika Eskolako ikasleakaz joko dute Vedrunako gasteiztarrek. Doan.

2016/04/16 - 20:00

Miele pelikula

Kurtzio kultur etxea | Sopela

Gizarte Zinema Zikloaren barruan. Italieraz, euskarazko azptituluakaz. Sarrera, doan.

2016/04/17 - 10:00

Bizkaiko Zubia Maratoi Erdia

Bizkaiko Zubia | Portugalete

Bizkaiko Atletismo Federazioak antolatuta. Lasterketa Portugaletetik aterako da, itsasadararen ezkerraldea zeharkatuko du Euskalduna zubiraino, eskuinaldera igaro eta Areetako Bizkaia Zubiko plazan amaituko da. Izena emateko epea apirilaren 12an amaitu zen.

2016/04/17 - 19:00

Confesiones de siete mujeres pecando solas antzezlana

Astrabuduko kultur etxea | Erandio

Besarkada Bizkaiko Antzerki Taldeen Federazioak antolatutako Emakumeak Eszenan zikloaren barruan. Luna Llena taldeagaz. Gaztelaniaz. Sarrera: 2 euro.

2016/04/18 - 19:00

Irakurleen Kluba

Astrabuduko kultur etxea | Erandio

Marcela Serrano idazle txiletarren *Diez mujeres* liburua aukeratu dute berbaldirako. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2016/04/19 - 20:00

Whiplash pelikula

Kultur Leioa | Leioa

Periseo Zineforumaren barruan. 16 urtetik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2,50 euro.

2016/04/20 - 18:00-20:00

Epailetza-ikastaroa

Aldai patronatua (Algorta) | Getxo

Bizkaiko Bertsozale Elkarteak antolatuta. ALBE Algotako Bertsolari Eskolako kide Joseba Santxok emango du ikastaroa. Euskaraz. Izen-ematea: 946 812 711 (ikastaroa hasi baino egun bi lehenagora arte).

2

www.hiruka.eus atarian Komunitateko kide egin eta zuk zeuk sartu ahalko duzu ekitaldia Agenda atalean.

1

Bidali informazioa helbide elektroniko honetara: hiruka@hiruka.eus

Zure ekitaldiren bat hemen ikusi nahi baduzu, bi aukera dituzu:



Lumak astindu

**KOLDO
TELLITU MEJIA**

Ikastolen elkarteko
lehendakaria

Ziburuko Kaskarotenea Ikastola, aurrera!

Asteburu honetan Ziburuko Kaskarotenea Ikastolaren eraikin berria inauguratu dugu. Hiru ikasturtean zehar erresistentzia lan gogorra egin ondoren ikastolak aurrera ateratzea lortu du, Udalak jarri dizkion oztopo guztiei aurre eginda.

Beste behin ere elkartasun eta ahalegin herrikoiak gure herriaren euskalduntzerako behar beharrezkoa den hezkuntza proiektua aurrera ateratzea lortu du. Izan ere, ezin dugu soil-soilik administrazio publikoen esku utzi gure proiektuen garapena.

Ikastolek Iparralden hazteko eta defendatzeko erakundeen beharra dute, baita babesaren ere. Baina bereziki ikastolakideena eta herritarrena. Alboan izan dira, lana egin behar denean eskuak urratuz; garrasi egin behar denean eztarriak urratuz; jaia egin behar denean hura antolatuz; ekimen orotan parte hartuz.

Ikastolek Iparralden, une zail eta erabakigarriak bizi dituzte. Baina ez dute, inolaz ere, atzera egiteko asmorik. Borroka honetan Seaska osatzen duen komunitateak erakutsi duen adorea eredugarria da. Ez etsitzeko eta, gainera, aurrera egiteko erabakimen hori oso gutxi daukate. Horregatik Kaskarotenea Ikastola aurrera ateratzeko erabili diren indarra, elkartasuna, auzolana eta laguntza beharrezkoak dira hemendik aurrera ere bai. Guraso, ikasle eta irakasle; herritar, eragile, politikari eta erakunde; Denon beharra dago.

Eskerrik asko Kaskarotenea-kidei hiru ikasturteotan eraman duzuen borrokari eta heldu diezuen erronkari erantzuteko erakutsi duzuen duintasun eta adorea eragatik. Ikasgai handi bat eman diguzue Euskal Herri guztiari; hunkitu gaituzue, eta engaiatu egin gaituzue zuen egitasmo zoro eta zoragarrian.

Ziburuko Kaskarotenea Ikastola, aurrera! ◀



Sei urteko ikasleek, 1. maila amaitzean, instrumentua aukeratu behar dute. © ERANDIOKO UDALA

Musika-ola, 25 urtez

Erandioko Musika Eskolak zilar-ezteiak bete ditu, 1991n hartu baitzuen Erandioko Musika Elkartearen lekukoa melomania bultzatu eta musika-ikasketak eskaintzeko.

Egunotan Erandioko Musika Eskola bere 25 urte luzeak ospatzen dabil, bertako lagunek hoberen dakiten moduan, doinu eta erritmo bizien bidez. 1988-89 ikasturtean abiatu zen musikaren irakaskuntza Erandion, Erandioko Musika Elkartearen ekimenez.

Hiru urte beranduago, Udalak arduradun hori hartu, eta 1991-1992an egungo musika-eskola sortu zuen. Udala

arduradunak pozik daude egindako lanagaz: «urteetako lan eta ahaleginari esker, Erandioko Udala Musika Eskola Udalaren heziketa-eskaintzarik garrantzitsuenetako bat da. Kalitatezko musika-hezkuntza ematen du modu ludiko batean».

Gaur egun, Eskolak zentro bana dauka Altzagan eta Astrabuduan, eta, denera, lau urtetik gorako 350 bat ikasle dauzka, hiru multzotan bana-

Apirilak 16, zapatua

13:00 Erandioko Musika Eskolako Bandaren ikasleen kalejira Altzagako kaleetatik.

18:30 Erandioko Musika Eskolako Bandaren ikasleen eta Gasteizko Vedrunaren kontzertua Josu Murueta kultur etxeko areto nagusian.

Apirilak 21, eguena

19:00 Deep Brass Quartet Musikeneko ikasleen metal-laukotea, azoka zaharrean.

Apirilak 22, barikua

19:00 Barakaldoko Kontserbatorioko Orkestraren eta Erandioko Musika Eskolako akordeoi-orkestraren kontzertua, Muruetan.

Apirilak 24, domeka

12:00 Hamaikasax haize-taldearen kontzertua Erandiogoikoko elizan.

Apirilak 25, astelehena

19:00 eta 20:00 Masterclass: gitarra klasikoa Josu Murueta kultur etxeko areto nagusian.

Apirilak 27, eguaztana

19:00 Abreu hari-laukoteren kontzertua Altzagako azoka zaharrean.

Apirilak 28, eguena

19:00 Erandioko Musika Eskolako ikasle ohien kontzertua Josu Murueta kultur etxean.

tuta: 4 eta 6 urte bitartekoak, 7 urtetik gorako neska-mutilak, eta helduak. Udala iturriek azpimarratu dutenez, musika-formakuntzak umeei eta gazteei «pentsamendu logikoa, hausnarketa-ahalmena eta autoestimua» gartzen laguntzen die. Eskolan ez ezik, ikasleek udalerriko elkarteetako hainbat jardueratan ere parte hartzen dute, musika kalera ateraz, barbarako Gabonetan, Euskararen Egunean, Korrikan, eta abar. 25. urteurreneko ekitaldiakaz batera, datorren ikasturterako izen-ematea zabaldu du Eskolak. Hilaren 22ra arte egongo da epea irekita. ◀

info+: 944 170 776 / meskola@erandioko-udala.net

Lanbro Beltza lehiaketa, aurton, euskaraz ere bai

Plentziako Udala eta *Calibre38* aldizkari digitalak Lanbro Beltza IV Nazioarteko Ipuin Lehiaketa antolatu dute. Lehenengo aldiz, parte-hartzaileek testuak euskaraz aurkeztu ahal izango dituzte, iaz Plentziako Udala agindu legez. Hala, lehiaketak modalitate bi izango ditu: euskara eta gaztelania, bakoitza 300 euroko sariagaz. Ipuinaren generoa beltza, intrigazkoa edo poliziala izango da, baina aurtengo gaiari lotua: lanbroa edo lainoa. Parte-hartzaileek adinez nagusiak izan beharko dute. Idazleek maiatzaren 20ra arte lan bana aurkeztu ahal izango dute modalitate bakoitzeko, beti ere ipuinak gutxienez

1.000 berba baditu, eta gehienez 3.000 (titulua, aipamenak eta izenordea barne). Lanak ezizenez edo izenordez sinatuko dira. Tituluak eta izenordeak ipuinaren lehen orrialdean agertu beharko dute. Ipuinak, originalak, argitaratu bakoak eta saritu bakoak izango dira. Posta elektronikoz bidaliko dira, mezuaren gaian «Lanbro Beltza ipuin-lehiaketa» idatzita. Barnean word-formatuko dokumentu bi erantsiko dira: alde batetik, ipuina, eta, beste aldetik, idazlearen datuak. Irabazleak ekainaren 24an eta 25ean jakinaraziko dituzte, Plentziako Lanbro Beltza VI. Topaketetan. ◀

info+: Revistacalibre38.wordpress.com

Ni gaztea nintzenean narrazio-lehiaketa, daborduko abian

Leioako Udala Kultura Sailak Narrazioen XVII. lehiaketa deitu du, *Ni gaztea nintzenean* goiburupean. Gai horretan oinarrituta, partaide bakoitzak narrazio bi aurkeztu ahal izango ditu, apirilaren 22ra arte. Lanak euskaraz edo gaztelaniaz egon daitezke, eta gehienez bost orrikoak izango dira. Narrazioek jatorrizkoak, argitaratu bakoak eta saritu bakoak izan beharko dute. Lehiaketan lau kategoria daude: adinbakoak, 19 urtetik 35 urtera bitartekoak, 36 eta 55 urte bitartekoak, eta 56 urtetik gorakoak. Modalitate bakoitzean sari bi izango dira: 250 eta 125 eurokoak. Denak argitaratuko dira. ◀

info+: Kulturleioa.com

«Ia uribekostarrak konturatzen diren etxien dauken aberastasunaz»

Koldo Zuazo Zelaietak euskalkien gaineko ataria aurkeztuko du eguenean, apirilak 14, 19:30ean, Algortako Azebarri elkartearen.

KEPA UGARTE MARTIARENA ▶

Hizkuntzalari eibartarraren berbetan, «euskerie bere osotasunien erakutsi eta landu nahi dogu». Une honetan euskalkiei ematen diete lehen-tasuna, «oso egoera txarrien ikusten ditugulako».

Zerk bultzatu zintuen euskalkien gaineko webgunea sortzera?

Joan dan aspaldixen, 70eko hamarkadatik hona, ahalegin haundixe egin da euskera jasue eta idatzixe lantzen. Ike-ragarri aurreratu dogu sail horretan. Baine, ostera, ahozko euskerie, lagunartekue, euskalkixe... oso baztartute geratu dira. Hutsune hori betetzen lagundu nahi genduke. Hizkuntza bat ez da bakarrik eskolan edo liburuetan erabilteko; lagunekin, etxekuekin, herrikuekin... erabilteko be bada, eta hizkuntzaren espresabide guztixek lantzie komeni da.

Euskalkiak galtzean euskara bera galtzen dela entzun dizugu.

Euskalkixek badauke indar afektibo eta emozional bat, eta hiztunak hori sentitzen ez badau, hizkuntzie bertan behera itxiko dau. Euskalkixe bizirik dagoen lekuetan nahitaezku da aintzakotzat hartzie eta babestie; bestela hiztuna deserrotu egingo da, eta bardin izengo jako euskeraz edo erderaz egin. Horixe gertatzen da askotan, eta, jakine, euskerie ataritzen da galtzaile.



Euskara batuaren eta euskalkien gaineko argibideak aurki ditzakegu www.euskalkiak.eus webgunean. © KOLDO ZUAZO

Euskara batuaren bilakaerak ez dio euskalkiari kalterik egiten?

Berez ez leukixo egin biher, baine Euskal Herrixen, eta, batez be Bizkaixen, gauzak oker aurkeztu ziren: «edo batue edo euskalkixek» esaten zan 1970eko hamarkadan. Eta hori ez da ikuspegi zuzena: «bai batue eta bai euskalkixek» da guk dinogune. Batuek Euskal Herri eta mundu zabaleko hiztunekin lotzen gaitu; euskalkixek geure ingurukoekin. Batue eta euskalkixek ez dira bata bestiaren arerixo; hizkuntziaren zatixek dira. Eta hizkuntzie osasuntsu egongo bada, zati guztixek egon biher dira osasuntsu.

Zelan eman ahal zaio buelta euskalkiaren egoera txarrari?

Konplejo asko dagoz. Askok uste dabe euskalkixek baserriko jentiaeren berbetak direla, jente zaharrarenak. Ikus-

pegi hori baztarten ahalegindu biher dogu. Hori hasteko. Eta ondoren, herri euskaldunetako ahozko esparruetan leku zabalague emon biher jakue bertako berbetei.

“Hizkuntzie osasuntsu egongo bada, batue eta euskalkixek egon biher dire osasuntsu”

Zelakoa da Uribe Kosta eskualdean berba egiten den euskalkia?

Orain dala gitxi ezagutu dot, eta ezusteko edarra izen da. Mendebaleko euskalkixaren barruen Uribe Kostako berbetie eta Debagoienekue (Arrasate, Oñati, Aramaixo aldeku) dira interesantienak. Zoritzarrez, Uribe Kostako

herri gehixenetan txarra da euskalkixaren (eta, beraz, euskerian) egoerie.

Ikasteko aukera dago.

Oso hiztegi ona egin dau Iñaki Gilas-tik Urdulizzen eta Iñaki Gamindek be hainbat saio egin ditu. Azkenaldixen bertsolaritziek be gora egin dau, eta, ziurrenera, hori lagungarri izengo da euskalkixaren onerako.

Esan daiteke altxor bat daukagula Uribe Kosta eskualdean?

Mendebaleko euskerie (Bizkaixen eta Deba ibarrien egiten dana) da euskalkirik berezixena, eta Uribe Kosta eskualdeko berbetie euskalki horren barruko berezixenetakue. Ia Uribe Kostako lagunek noz edo noz begixek zabaldu, eta etxien dauken aberastasunaz konturatzen diren! ◀

info+: www.euskalkiak.eus

HIRUKAko kide izan gura duzu?

Bi aukera dituzu:

1 Proiektuan barrutik parte hartzeko kooperatibako Bazkide eginez:

BAZKIDE ERABILTZALE izanda:

- **Pertsona Juridikoak:** 1.000 € + Urteko kuota: 30 €
- **Norbanakoak:** 100 € + Urteko kuota: 30 €

BAZKIDE LAGUNTZAILE izanda:

- **Pertsona Juridikoak:** 200 € + Urteko kuota : 33 €
- **Norbanakoak:** 50 € + Urteko kuota : 33 €

2 Egitasmoa bultzatzeko ekarpena eginez:

HIRUKA LAGUNA

- Urtero ekarpena eginez (gutxienez 35 €) proiektuaren bultzatzaile izango zara, hainbat onurez baliatuz.

Bazkide Erabiltzailea

Bazkide Laguntzailea

Hiruka laguna

Urtean 35€ Urtean _____ €

Izena

_____ NA _____

Abizenak

Helbidea

Posta kodea

Herria

Herrialdea

Telefonoa

E-posta

Kontu korrante zenbakia

Bete ondorengo datuak eta bidali postaz hona: Martikoena 16, 2. solairua. 48992 GETXO

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak libxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzailearen harremanetan jaritzeko eta HIRUKAren informazioa eta publikazioa helarazteko. Erabiltzaileek erabiltzearen aurretiko adarpena behar du. Erabiltzaileek ezin dute erabiltzearen aurretiko adarpena bere esabirik bere ditazke. Helbide no: 48992 GETXO. Ego-konpon: hiru@hiruka.eus

Anne Etchegoyen abeslari baxenabartarraren ahots xarmagarria entzuteko aukera egongo da apirilaren 21ean, eguena, Bilboko Loraldia jaialdian; Algortako Biotz Alai abesbatzagaz batera kantatuko du, 20:00etan, Arriaga antzokian. Sarrerak 20 euroan daude salgai. Bira berberaren barruan, ekainaren 25ean Algortan emango dute kontzertua Anne Etchegoyenek eta Biotz Alai abesbatzak.

«Berezia da emakume bat gizonen abesbatza batekin kantatzen entzutea»



KEPA UGARTE MARTIARENA

Nondik datorkizu abesteko zaletasuna?

Txikitatik datorkit. Amak 8 urte nituela sartu ninduen Donapaleuko haurren abesbatzan. Bera Euskal Herriko Abesbatzen Federazioaren idazkaria zen, eta gizon zein emakumeek osatutako koruan kantatzen zuen. Berehala hartu nion gustu handia abesteari.

Orduan ikusi zenuen zure bizitza abeslari izatera bideratu gura zenuela?

Txikia nintzen orduan; adin horrekin ez neukan buruan etorkizun batean abeslaria izango nintzen ala ez. Hala ere, denborarekin, kantatu, artista ezberdinak entzun, jendea ezagutu eta musika-eskolan ikasketak egin ahala, ikusi nuen abeslari bihur nintzekela. Haur-abetesbatzan nengoela, musika-lehiaketetara aurkeztu ere egiten nintzen. Urte batzuk beranduago Donapaleuko musika-eskolan hasi nintzen solfeo-ikasketak egiten. 16 urte neuzkala, berriz, Baionako musika-eskolan izena eman nuen, kantu klasikoko ikastaroak egiteko asmoz.

Zelan eman zinen ezagutzera?

Musika-eskolan nire ahotsa hobetzen joan nintzen pixkanaka. Halako batean, 2003an, Parisen egin behar zuten Munduko Atletismo Txapelketaren irekiera-ekitaldian *Marsellesa* Frantziako ereserkia abesteko aukeratu ninduten. Ondoren, Munduko Saskibaloia Txapelketan (2009), eta, Montpelieren, Frantzia eta Argentinaren arteko errugbi-partidan (2010) ere abestu izan dut himno frantziarra. Hala

ere, argi utzi nahi dut mugaren bestaldean modu ezberdinean ikusten dugula ereserkien afera; Frantzia ez zen egon Francisco Francoren diktaduraren pareko erregimenik. Hegoaldean sortu izan banintz, ez nuen inondik inora Espainiako himnoa abestuko. Hori oso argi daukat.

Hala ere, hainbat ekitalditan Frantziako ereserkia kantatzeaz gain, kontzertuak ematen nituen elizetan eta beste hainbat lekutan; batzuetan, bakarrik abesten nuen, eta beste batzuetan, abesbatzarekin eskaintzen nituen emanaldiak.

“**Marsellesa kantatu dut ekitaldietan; baina, Hegoaldean sortu izan banintz, ez nuen Espainiako himnoa abestuko**”

Telebista-saio batean parte hartu zenuen. Horrek lagundu zizun?

Le Chœur du Village (herriko abesbatza) telebista-saioan agertu nintzen, 2012an; Frantzia arrakasta handia izan zuen France 3 katearen programa horrek. Beste talde batzuekin batera abestu nuen; irabazitako dirua musika-eskola berria eraikitzeko erabili zen.

Les voix basques (Euskal ahotsak) diskoagaz lortu zenuen arrakastarik handiena, ezta?

Bai. Urrezko diskoa izan zen Frantzian; 80.000 ale baino gehiago saldu genituen. Nire aburuz, abestien zerrendari dagokionez, oso disko homogenea da. Bertan, hainbat euskal kantu ezagunen bertsioa eskaintzen dut; Mikel Laboaren edo Benito Lertxundiaren abestiak eta nire konposizioak entzun daitezke disko horretan.

Lan horren produkzioa ere ezberdina izan zen; dirua inbertitu eta diskoa Sony etxearekin egitea erabaki genuen.

Bestalde, Aizkoa gizonen abesbatzaren parte-hartzea berebizikoa izan zen; ideia berritzailea suertatu zen emakume bat gizonen osatutako koru batekin kantatzen entzutea.

Ezustean harrapatu zintuen arrakastak?

Ezusteko ederra izan zen diskoaren horrenbeste kopia saldu, eta, horri esker, Frantzian urrezko diskoa irabazi izana. Lan txukun bat egiteko asmoa baino ez genuen, baina bikaina izan da lortutakoa. Oker ez banago, *Hegoak* abestiaren bideoklipa milioi bat lagunek baino gehiagok ikusi dute jada.

Horretaz gain, munduko beste hainbat herrialdeetan ere abesteko aukera eman zidan; hala nola, Argentinan, Amerikako Estatu Batuetan, Ingalaterran, Irlandan eta Espainian.

Mikel Laboa zenaren *Txoria txori* abestiaren bertsioa da *Hegoak*. Inoiz kantatu den abesti ederrene-



Biografia

Anne-Helene Etchegoyen Sarthou (Donapaleu, Nafarroa Beherea, 1980) abeslariak euskaraz, frantsesez eta gaztelaniaz kantatzen du. Frantzia arrakasta handia izan zuen, *Le Chœur du Village* (herriko abesbatza) telebista-saioan agertu zenean; beste talde batzuek abestu zuen saioaren seigarren atalean. 2012an eman zuen France 3 telebista kateak saio hori. Hala ere, fama handia hartu zuen 2003an, Parisen egin zen Munduko Atletismo Txapelketan *Marsellesa* Frantziako ereserki kantatzeko aukeratu zutenean.

Etchegoyenen laugarren diskoa, *Les Voix Basques* (2013), urrezko diskoa izan zen Frantzia; 80.000 ale baino gehiago saldu zituen. Aizkoa gizonezkoen abesbatzagaz grabatu zuen. Munduko beste hainbat herrialdetan ere abestu du, esaterako, Argentinan, Amerikako Estatu Batuetan, Ingalaterran, Irlandan eta Espainian. Bestalde, Frantzia barrena, *Basque eta Paz Tour* izeneko bira egin zuen; izenburu horretan bildu zituen kantatzean darabiltzan hiru hizkuntzak, baita Euskal Herrirako gura lukeen bakearen ideia ere.

2015eko irailaren 21ean Done Jakue bideari ekin zion, disko berria bizipen horretan oinarritzeko asmoz; urriaren 21ean amaitu zuen bidaia. Lan berria 2017ko urtarrilaren 27an plazaratu du. Gaur egun, Algortako Biotz Alai abesbatzagaz ematen ditu kontzertuak.

info+: www.anne-etchegoyen.com

tarikoa bat da; betidanik asko maite izan dut kanta hori. Beraz, guztiz naturala suertatu zen niretzat disko hori aukeratzea. Laboaren abestiaren hitzak ez dira atzokoak, gaur egun ere zentzua badaukate; Ipar eta Hego Euskal Herriaren arteko batasuna defendatzeko gokiak dira.

Zein abeslari edo taldetan oinarritzen zara zure kantak egiteko?

Nahiko eklektikoa naiz. Besteak beste, munduko musika eta folk-musika atsegin ditut; esaterako, Souad Massi, Ibrahim Laalouf, Jack Jonshon, Manu Dibango, Raul Paz, Xoel Lopez, eta abar.

Zelan bururatu zitzaizun Aizkoa abesbatzagaz batera kantatzen hastea?

Les voix basques proiektua sortu baino lehen, elkarrekin lanean genbiltzan jada; gutxi gorabehera, orain dela hamar urte ezagutu genuen elkar, Baionako festetan. Lanerako haiek aukeratzea zen logikoena. Ahots ederrak dituzte. Gainera, abesbatzak 12-14 gizon bakarrik izanik, oso erraza da haiekin lan egitea; kantari onak eta oso zintzoak dira.

Orain, Algortako Biotz Alai abesbatzagaz kantatzen zabilta. Zelan aukeratu zenituen algortarrak? Hego Euskal Herrian *Les voix basques* lana aurkezteko, *Ongi etori* diskoa plazaratu genuen 2014an, Elkar argitaletxearekin; Aizkoa abesbatzarekin batera egindako *Les voix celestes du Pays Basque chan-*

tent Noel (2005) eta *Les voix basques* (2013) diskoen nahasketa bat da.

Hala ere, mugaren bestaldean nire kontzertuak antolatzen dituen Jose Anjel Serrano produktoreak proposatu zidan Biotz Alai abesbatza algortarrarekin ematea Hegoaldeko kontzertuak; elkarrekin oso ondo konpontzen gara korua eta biok. Gainera, ekainaren 25ean, Algortan bertan izango dugu emanaldia. Oso berezia izaten da nork bere etxean abestea; are gehiago, abesbatzak 50 urte betetzen dituen urtea izanda.

“ Bakerako bidean, dena da posible, beti ere elkarrizketan eta elkarren arteko errespetuan oinarritzen bagara ”

Basque eta Paz Tour birari ekin zenion 2014an. Zein ezaugarri eduki beharko lituzke buruan daukazu bake-eredu horrek?

Dena posible dela uste dut, beti ere elkarrizketan eta elkarren arteko errespetuan oinarritzen bagara, noski; indarkeria alde batera utzi eta elkarren artean hitz egitea da gakoa. Etorbizuna, gure seme-alabak izan behar ditugu buruan.

Zergatik aukeratu zenuen euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez abestea?

Kantatzea maite dut; nire bizitzan entzun izan ditudan hiru hizkuntzatan egin izan dut beti. Hala ere, euskaraz gehiago kantatzen dut, gaztelania eta frantsesez baino. Izugarri maite dut euskaraz abestea.

Hurrengo diskoa Done Jakue bidean barrena egindako bidaian oinarrituko duzu.

Bidaia egin aurreko lau urtean lan handia egin nuen; gelditu gabe ibili nintzen. Introspekzio bat egin nahi nuen. Gainera, abiatu baino sei hilabete lehenago, nire amatxi (amama) hil egin zen; orduan konturatu nintzen sinismenak zer garrantzia daukan. Donapaleuko nire amatxiren etxetik abiatu nintzen Compostelara bidean.

Zelan doa disko horren produkzioa?

Paris eta Euskal Herriaren artean lan egiten ari gara. Nire gitarra-jolea paristarra da. Hortaz, bertan grabatu ohi ditugu biolin eta gitarra soinuak. Ahots eta instrumentu tradizionalak dagokienez, Miarrizteko Lagunak estudioa erabiltzen ari gara horiek grabatzeko. Bestalde, Iruñeko Paz de Ziganako ikastolako umeen abesbatzarekin saioa egin genuen, eta haien ahotsak diskoan jarriko ditugu. Euskal Diasporari buruzko kanta osatzeko, berriz, Amerikara eta Argentinara joango gara grabatzera. Diskoa urtarrilaren 27an aterako dugu; otsailaren 27an, Parisko Olympian aretoan aurkeztuko dugu. ◀



Euskalgym campusa, Faduran

Hamalau urte baino gutxiago dituzten gimnastek gurasoen baimena bidali beharko dute. © EUSKAL GIMNASTIKA FEDERAZIOA

Nazioarteko Euskalgym Campusa datorren uztailen hartuko dute Fadurako Hobekuntza Teknikorako Zentroak eta kiroldegiak, iaz legez. 250 gimnasta espero dituzte.

Euskal Gimnastika Federazioak antolatuta, Nazioarteko Euskalgym Campusa izango da uztailaren 10etik 14ra Algotan. Federazioak iazko esperientzia ona errepikatu gura izan du, eta berriro ere, Fadurako HTZ Hobekuntza Teknikorako Zentroak eta kiroldegiak hartuko dute Euskalgymen edizioa, 11. aldiz. Antolatzaileek jakinarazi du-

tenez, akabuko egunean, uztailaren 14ko arrastian, campusean parte hartuko duten gimnasta denek erakustaldia eskainiko dute Fadurako kiroldegian bertan; sarrera doakoa izango da lekua bete arte. Hala, aurreko eredu aldatu dute horretan. Iazko edizioan, Durangoko Landako kiroldegian egin zuten erakustaldia, eta EITBk Interneten eskaini zuen horren emantaldia.

Campusean parte hartuko duten gimnastak hainbat mailatan banatuko dituzte: eskolarteko mailakoek goizez bakarrik jardungo dute; oinarri-mailakoek, federatuek eta teknifikaziokoek jardunaldi bikoitza izango dute, eta kirolarientzako egoitzan geratzeko aukera ere izango dute.

Izen-ematea

Interesdunek daborduko inskripzioa bete dezakete, ekainaren 12ra arte; domeka horretan itxiko da izena emateko epea. Antolatzaileek 250 leku eskaini dituzte, eta eskaerak heltzen diren

ordenan hartuko dituzte, denak bete arte. Prezioetan, oinarrikoena 135 eurokoa da; eskolarteko mailako goizeko campusak uztailaren 14ko bazkaria ere barne hartzen du salneurri horretan. Bestalde, jardunaldi bikoitza egingo dutenek 250 euro ordaindu beharko dituzte, bazkariak barne. Azkenik, Faduran lo egiten dutenentzako prezioa 350 euro izango da. Denek istripu-asegurua izango dute. Inskripzioa egiteko diru-sarreraren egiaztagiria posta elektronikoz bidal daiteke. ◀

info+: 688 854 887 (lanegunetan 10:00-14:00)
izen-ematea: campus.euskalgym@gmail.com

Bizkaiko Zubiaren Maratoi Erdia egingo dute aste-akabu honetan

Domeka honetan, apirilaren 17an, Bizkaiko Zubiaren Maratoi Erdiaren hirugarren ekitaldia egingo dute, 10:00etatik aurrera. Herri-lasterketa izaera dauka probak, eta Getxo eta Portugalete udalerriak lotuko ditu. Lasterketa Bizkaiko Atletismo Federazioak antolatu du, Bilbo, Portugaleteko eta Getxoko udalen laguntzagaz. Korrikaldia Portugaleteko Canilla pasealekutik aterako da, udaletxearen ondotik. Itsasadarraren ezkerrekoa zeharkatuko du, eta Sestao eta Barakaldo atzean utzi ondoren, Bilbon sartu, eta Euskalduna zubiraino helduko da. Bertatik eskumalderara igaroko da, Erandio eta Leioatik



Proban parte hartzeko adinez nagusia izan beharra dago. © GETXOKO UDALA

segitu, eta Areetako Bizkaiko Zubiko plazan ipinitako helmugara helderaino, 21 kilometroak beteta. Dorsalak artean badaude, zapatura arte eman

ahal izango da izena Trirunners eta Kantxa Kirol Moda Getxoko dendetan. Prezioa 25 eurokoa da. ◀

info+: 21kpuentebizkaia.com

Kepa Acero eta Darwinen Eboluzio-teoria

Kepa Acero surflari algortarra Ekuadorreko Galapago irletan izan zen pasa den astean. Bertako Turismo Ministerioak gonbidatuta, Acerok «Surfaren etorkizuna Galapago irletan» berbaldea eskaini zuen bertan, Surf Akademiaren ikasleen eta Santa Cruz Surf Klubaren kideen aurrean. Gainera, Antartida, Alaska, Afrika edo Indonesiara egindako bidaien berri eman zien, nazioarteko txangoen argazkiak erakutsiz. Era berean, Acerok bideo batean gogora ekarri du Charles Darwinen Galapago uharteetara 1835ean egin zuen espedizioa. Bertan, Eboluzio-teoriaren oinarriak landu zituen. ◀

info+: Kepaacero.com

Bizkaia Kosta Trail, Lemoizen

Domekan, hilaren 17an, Lemoiz-ek hartuko du BKT Bizkaia Kopa Trailen bigarren etapa. Daborduko dortsal denak agortu dira, eta ez da, beraz, izen-ematerik egongo probaren egunean. BKT mendi-kirolaren liga da; zortzi etapa ditu, eta kirol-osagai lehiakorrek zein ez lehiakorrek batzen ditu. Lehiatu gura dutenek honako probak izan dituzte aukeran: 10 eta 22 kilometroko trailak, mendi-bizikletako 22 kilometroko lehiaketa, eta 9,5 kilometroko txakur-krosa. Euren kabuz kirola egitea bakarrik gura izan dutenek, ordea, 9,5 eta 22 kilometroko martxetan izena eman ahal izan dute. BKT elkartasun-ekimena da, eta horregatik Stop

Sanfilippo Fundazioagaz batera egiten du behar. Stop Sanfilippo-k izen bereko sindromearen aurkako ikerketa bultzatzen du, osabidea edo tratamendua lortzeko helburuagaz. Horrez gainera, fundazioak gaixotasuna duten umeen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzea gura du, gaixotasunaren ezagutza hedatzeagaz batera, diagnosi goiztiarrak egiteko. Bide horretan, Bizkaia Kosta Trailak domekan telefono zaharrak eroateko deia egin du, fundazioari emateko. Inskripzioa egin dutenek dortsala batu ahal izango dute goizeko 08:00etatik aurrera, Armintzako Portubide kalean. Handik ordubetera hasiko dira lehiaketako probak zein lehiaketatik kanpokoak. ◀



Antolatzaileek 5.000 euro banatuko dituzte saritan. © ITZIAR ORTIZ DUYOS - BKT

Getxo Waterpolo taldea lehenengo mailara igo da

Getxo Igeriketa Waterpoloren gizonzkoen talde seniorrak Euskal Herriko lehenengo mailara igotzea lortu du. Hala, datorren urtean euskal waterpoloko elite-kategoria jardungo du. Gainera, getxoztarrek ligaren jabe bihurtu dira. Balentria Euskal Herriko bigarren mailako 01-04 taldeko ligaren bigarren fasean lortu du, azken partidari. Getxoztarrek 6-8 irabazi zitoten Lautada UP Gasteiz taldeari, Mendizorrotzara egindako bisitan. Partida berdinduta egon zen lehenengo hiru laurdenetan, 2-2, 2-2 eta 1-1 zatikako emaitzak jasoz. Baina azkenengo zatian, Getxoko eskifaiak distantzia



GETXO IGERIKETA WATERPOLO

ipini zuen arabarrekiko, eta 1-3 irabazi zien. Bitartean, Santoña ere partida irabazi zion Deportivo Bilbaori, 8-10. Getxo eta Santoña berdinduta daude: biek 13 puntu lortu dituzte; baina, getxoztarrek aldeko tanto gehiago batu dituzte, eta gutxiago sartu dizkiete. ◀

Taldearen Egunagaz itxiko dute mendi-astea

Leioako Mendi Taldeak domekan emango dio akabera aste honetan egiten dabilen mendi-asteari. Ohi den legez, Taldearen Egunaren txangoagaz amaituko du mendizaletasuna sustatzeko astea. Hala, domekan, 07:50ean Pinueta auzotik aterako dira eta ibiltariak batuko dituzte Lamiakon, Luis Bilbao Libanon, Deustun eta Bilbon. Bertatik, 795 metroko Urko menditxora igoko dira, Markina eta Mallabia bitartean dagoen Arrangizgana edo Trabakua gainetik Eibarko Ixuaraino mendi-ibili erraza eginez; sasoi denentzako egokia da. Txangoaren ostean, mendizaleek Ixuako tontorreko

jatetxean bazkalduko dute. Bazkal ostean, Mendi eta Argazkilaritza Lehiaketaren sariak banatuko dituzte, hainbat opari zozkatzeaz gainera. Leioako Mendi Taldeak ohartarazi duenez, leku-kopurua mugatua da. Txangorako eta bazkarirako izena eman gura dutenek barikura arte izango dute epea, hilaren 15ean itxiko baitute zerrenda. Prezioa 30 eta 42 euro bitartekoa da, adinaren eta bazkideztaren arabera. Domeka baino lehenago, bada zer ikusi eta zer entzun mendi-astea, barbarako: eguenean eta barikuan film dokumental bana izango da Kultur Leioan, 19:30ean. ◀



Dacia Sandero

6.200€¹-tik hasita



11P eta Belarria 75Pa, porokaltzari eta gaituzkimenek Sanzino Saso 1.2 55Kw (75 CV) motza erositako, zurgak, deskonjuntua eta PVE-8 Plankin baldintza bane. Itxiko emaitza: Sandero 1.2 55Kw (75 CV), 7.900 €. Zurgak, deskonjuntua eta PVE-8 Plankin baldintza bane. Partikular eta inbentarioeztat, behera Dacia Box-en beraz PO-Sangue S'Areni Espainiakoa.

11P eta Belarria 75Pa, porokaltzari eta gaituzkimenek Sanzino Saso 1.2 55Kw (75 CV) motza erositako, zurgak, deskonjuntua eta PVE-8 Plankin baldintza bane. Itxiko emaitza: Sandero 1.2 55Kw (75 CV), 7.900 €. Zurgak, deskonjuntua eta PVE-8 Plankin baldintza bane. Partikular eta inbentarioeztat, behera Dacia Box-en beraz PO-Sangue S'Areni Espainiakoa.

11P eta Belarria 75Pa, porokaltzari eta gaituzkimenek Sanzino Saso 1.2 55Kw (75 CV) motza erositako, zurgak, deskonjuntua eta PVE-8 Plankin baldintza bane. Itxiko emaitza: Sandero 1.2 55Kw (75 CV), 7.900 €. Zurgak, deskonjuntua eta PVE-8 Plankin baldintza bane. Partikular eta inbentarioeztat, behera Dacia Box-en beraz PO-Sangue S'Areni Espainiakoa.

Dacia gomendatzeri du: eif

www.dacia.es / 91 506 53 59 | Ezagutu zure Renault-Dacia Kontzesioan

Izan AUTO-GIDARI ARGIA. Erosi Dacia bat.

Dacia Sandero Gama: kontsumo mistoa (l/100 km) 3,5etik 5,8ra arte. CO₂-aren isuriak (g/km) 90etik 130era arte.

BILBO BERRI Jon Arrospide, 20. Tel. 94 448 39 00. DEUSTU www.bilboberri.com

LEIOA BERRI Iparragirre Hiribidea, 94. Tel. 94 480 42 90. LEIOA www.renault.es/concesion/leioaberri

Txumaren omenez, 30 talde



Elkar Kirolak txirrindularitza-eskolak 2012an antolatu zuen proba lehenengo aldiz. © ELKAR KIROLAK

Aurten, uztailaren 22tik 24ra egingo da Txumaren Nazioarteko Hiru Egunak izeneko kadeteen txirrindularitza-probaren bosgarren edizioa. Ohi den legez, nazioarteko parte-hartzaileak ugariak izango dira. Berango, Erandio eta Leioako udalek sustatzen dute Elkar Kirolak txirrindulari-eskola, eta eskolak berak zabaldu duenez, aurten «lasterketak hainbat nobedade garrantzitsu izango du ibilbidean». Hala ere, oraindino ez dute zehaztu egin asmo dituzten aldaketa horiek.

Antolatzaileek baieztatu dute probak parte-hartze zabala berreskuraturiko duela, krisiak eragindako murrizketen ostean: «irteeran 30 bat talde izango dira berriro ere. Euren artean, nazioarteko hiru talde indartsu: belgikar bat, italiar bat, eta portuges bat. Eurakaz batera, Espainiako autonomia-selektiorik onenak ahaleginduko dira garaipena lortzen». «Espainiako estatuan egiten den kadete-katego-

ria birarik onena» Txuma Olagueren omenez egiten da. Olague Berangon jaiotako eta Erandioako apaiza izan zen.

Lasterketa horrek izaten du eskual txirrindularitzaren profesionalen eta profesional ohien parte-hartzea eta hainbat bisita. Hala, bertatik pasatu dira Miguel Indurain, Jonathan Castroviejo, Julian eta Ruben Gorospe, Marino Lejarreta, Roberto Laiseka, Joseba Beloki, Pedro Horrillo, Alberto Leanizbarrutia, Josean Fernandez Matxin, Mikel Pradera, David Lopez, Igor Anton, Omar Fraile edo Mikel Iturria, batzuk aipatzearen.

Historikoki, Herrialde Katalanetara joan dira Txumaren maillotak. Iazko irabazlea Guillem Garcia izan zen, Kataluniako selekzioaren txirrindularia. Aurreko urteetan, Eugenio Sanchez eta Mikel Montoro Valentziako Erki-degoko selekzioko kideek lortu zuten Txuman nagusitzea. Eta lehenengo edizioan, Guillem Cassu katalana igo zen podiumeko lekurik gorenera. ◀

Punta Galeak bere taldeak aurkeztu ditu

Punta Galea txirrindulari-elkar-teak bere taldeak aurkeztu zituen pasa den barikuan, Faturan. 2016ko denboraldia abian da, eta aurten, 75 txirrindulari lehian dabilta, aurreko denboraldian baino gehiago; apurka-apurka jende gehiago animatzen dabil txirrindularitzan. Aurten, zazpi taldek osatzen dute Punta Galea, zikloturismo-taldeaz gainera. Elkar-teak sexu bakoitzeko talde bana dauka txirrindularitza-eskolan (haurrak), kadeteetan eta gazte-mailan. Joan den denboraldira arte, gazte-kategoriaraino heltzen ziren txirrindulariak Punta Galean, baina aurten pauso bat aurre-

ra eman, eta akordio batera heldu dira Seguros Bilbaogaz. Horri esker, Getxon ere egoitza duen aseguru-etxearen txirrindularitza-taldeko 23 urte azpiko talde amateurak hartu ditu aurten Punta Galeako lau txirrindulari: Daniel Avellaneda, Nicolas Saenz, Eukeni Ro-taetxe eta Asier Perez.

Bestalde, Punta Galeak antolatu-ko dituen eta parte hartuko duen hurrengo ekitaldien berri ere eman zuen. Lehenengoa datorren maiatzaren 7an izango da, Javier Otxoa zikloturismo klasikoa, hain zuzen ere. Hurrengo egunean, Federazio Kopako taldekako erlojupekoan lehiatuko dira. ◀

Bizkaiko batelariak finala jokatu dute

Hamar estropaden ostean, eta Bizkaiko Batelen Liga amaituta, une erabakigarria heldu da. Datorren aste-akabuan egingo da Bizkaiko Batelen Txapelketa, ohi den legez Sestaoko Benedikta kaian. Zapatuan, sailkapen-fasea jokatu da, eta hurrengo egunean, finala bera. Oraindino, Bizkaiko Arraun Federazioak ez ditu zehaztu ordutegiak eta tandak. Uribe Kostako lau klubek ere ez dute zehaztu zein kategoriatan parte hartuko duten. Ligan erakutsitako maila mantentzekotan, Arkote, Getxo, Lutzana eta Raspas arraun-taldeetako neska-mutilek ezus-teko bat baino gehiago emango dute. ◀

Lagun Arteak harrera-probak egingo ditu

Leoako Emakumeak eta Leioa Kirol Elkarteko taldeen futbol-eskola, Lagun Arteak, 2003 eta 2011 artean jaiotako ume eta gazte berriak onartzeko entrenamendu eta probak egingo ditu apirilaren 19tik 28ra. Probak ezinbestekoak dira, umeek 2016-17 denboraldian parte hartu gura badute. Hautagaiek Sarrienako lehenengo zelaian agertu beharko dute. Zalantzaren bat izanez gero, Isusko Loroño oinarri-futbolaren eta eskolaren koordinatzaile nagusiak erantzungo ditu, egunero egongo baita bertan, talde denetako teknikariagaz batera. ◀

info+: Hiruka.eus/kirolak

Zaragozaraino joango dira Leioaren zaleak

Leoako Kirol Elkartek ez du ahalginik txikiena egin barik utzi, talde nagusiak 2.B mailan jarrai dezan. Horregatik, Sarrienako harrailak betetzeko hainbat gonbidapen eman zieten Lagun Arteak futbol-eskola umeei eta Leioako dendetako bezeroei, La Rodaren aurkako partidari. Kanpoan ere, Ebroren aurkako deman-

animoak emateko ardura zaleei errazteko asmoz, klubak autobusa ipini du Zaragozara. Prezioa 25 eurokoa da, eta gutxienez, 40 pertsonak eman behar dute izena. Igor Gordobilaren taldeak helburu izango du ligako hirugarren garaipena segidan, 41 puntuk lasaitasuna handia emango lioketelako. ◀

izen-ematea: 659 654 416



Kirolaz beste

IÑAKI ETXEGIA MARDARAS
Kirolaria

Zer ematen digu kirolak gaur egun

Bakoitzak kirola era desberdinean bizitzen duela argi dago, are gehiago kirol bati edo beste bati buruz hitz egiten dugunean. Ez da berdina futbolzalea izatea edota judoa gustuko izatea, adibidez. Ni pertsonalki, bi kirol horietan ibilitakoa naiz, eta, beraz, bata ematen zizkigun laguntzez gozatu dut eta besteak dituen gabeziak, bai ekonomikoak zein baliabideenak, gaur pairatzen ditut. Gizartean bezala, klase sozialak dauden bezala, kirolean ere mailakaturik zein diskriminaturik dauden kirolari asko daude, bakoitzaren esfortzua baloratzen dituzten urrun, kirolaren beraren ospea soilik kontuan hartzen delarik. ◀

Lehiaketa. Non da?

Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu lehiaketa-atal honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?



Musiketan zikloa

Lucy Ward-en

**kontzerturako
5 sarrera bikoitz
ditugu, Producciones
Serranoren ekimenez.**

Apirilak 24, domeka,
20:00; BBK Aretoa (Bilbo)

**Apirilaren 20a baino
lehenago**, helarazi erantzuna,
zure izen-deiturak eta
harremanetarako bide bat hona:
hiruka@hiruka.eus
edo 944 911 337

Zorion agurrak ^{5€}

Urtebetetze,
ezkontza zein
jaiotza...

Bidali zeurea!

publi@hiruka.eus
94 491 13 37



**IRATXE
SANTURTZI**
Zuriñeren partez

Zorionak, amaxo! Urte gehiago
bete arren, niretzat beti izango
zara ederrena! Askok maite zaitut!
Txokolatezko muxu handi-handiak!



**MARTIN
BARRIKA**
Etxekeen partez

Apirilaren 20an aitatxo onenaren
urtebetetzea da, zorionak txirindulari
jauna! Urtebetetze ederra igaroko
duzu eguzkitan, e? Gozatu ezazu eta
bizipoza!! Maite zaitugu!



**GORKA
URDULIZ**
*Inaxio, Eukeni eta
Zuberoaren partez*

Lamagan zauden arren, gure zorion
agurra urrunetik... Zorionak Gorka!!!
Plentzitik besarkada erraldoia...
BIBA ZU!! Presoak sorterrira!

Sudokua

			8	2				5
							9	7
5		8			4		1	
	3		2		1		8	
2						1		
			3	6				
		5	7			3		
3								
4	7					9		

Gogoan hartu 1etik
gra arteko zenbaki
denek agertu behar
dutela zutabe,
ilara eta azpilauki
bakoitzean.

Soluzioa

8	5	6	9	3	1	2	7	4
1	7	9	2	5	4	6	8	3
5		8			4		1	
6	2	7	5	9	3	1	4	8
4	3	1	7	8	6	9	5	2
9	8	5	1	4	2	7	3	6
3	1	2	4	7	9	8	6	5
7	9	8	3	1	5	4	2	6
4	6	5	9	2	8	3	1	7

Horoskopoa



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Inork ez du eztabaidatzen zu jakituna izatea, baina, dena den, kontuan hartu benetako jakintsuak apalak izaten direla.




Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Faltan dituzu hemen ez dauden lagunak. Isiotu egizu kan dela bat eurengatik. Haiek eta senideek eskertuko dizute.



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

On do dago eskakizunak eta aldarrikapenak egitea, baina nor bere konpromisoak hartu behar ditu, aurrrera eroan gura izatekotan.



Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Banaterako orduan besteak aintzat hartzea ondo dago, baina ez ahaztu zeure buruari ere laguntzea. Ahalegin du zaitetz zure in dependentzia gordetzen.



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Lasai egon zaitetzke, gertatutakoa susto txiki bat besterik ez da izan. Hemendik aurrera den-dena ondo joango da.



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Despistatua izatea ez da berez larria. Baina kontuz ez bazabiltza, noizbait arazo bat baino gehiago izango duzu.



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Agian zuk ere baduzu sentsazio bera, baina berba asko egiten duzu, eta egin, gutxi egin. Bada ekin-tzara pasatzeko garaia!



Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Lagunik galdu gura ez baduzu, zintzo jokatzeko beharrezkoa izango duzu. Horrela jardunez gero, ez duzu arazorik izango.



Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Euskaraz bizitzeko aldarria eta konpromisoa egiteko aukera izango duzu egunotan. Gainera, baliatuz gero, egun ederra pasatuko duzu.



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Zure inguruan ezagutzen dituzue langabeziak eragingdako arazoak. Behera egiten omen dabil, baina... Halere, laster albiste onen bat izango duzue.



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Ikasi gura baduzu, ikasi. Horretarako ez da inspirazio-iturri berezirik behar. Ez ipini aitzakia merkerik zeure buruari!



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Momentu latzak pasatzen zabilta, baina tunelaren amaieratik datorren argia antzeman daiteke. Lasai egon, ez da kontrako norabidean doan tren.



Bioaniztasuna

Getxoko fauna, bizi-bizirik

Fauna ugaria eta askotarikoa bizi da Getxoko natura-ingurunean; udalerrian 200 animalia espezie baino gehiago identifikatu dituzte, Xabier Buenetxea basogintzako ingeniari teknikoak jakinarazi duenez.

IKER RINCON MORENO

Fauna ugaria eta askotarikoa bizi da Getxoko natura-ingurunean, Bolueko hezegunean eta lurmuturretan, batez ere. Bertoko animalien kontrol eta zaintzaz arduratzen da Fauna eta Natura-ingurunean Hautemateko eta Aztartzeko Zerbitzua. Bolueko Ingurumen Ikerketak enpresaren esku dago zerbitzu hori, eta Xabier Buenetxea basogintzako ingeniari teknikoak da zerbitzu horren arduraduna. Bere berbetan, Getxoko biodibertsitatea «egoera onean» dago; «fauna basatia ikusteko leku ona da Getxo». Halere, hobeto egon zitekeela aitortu du, masifikazioak, industrializazioak eta urbanizazio-prozesuek biodibertsitatea murriztea eragin dutelako, «beste hainbat tokitan ere gertatu den bezala».

Buenetxeak azaldu duenez, Getxok daukan kokapen geografikoa dela-eta, hegazti-populazio «interesgarria» dago inguruan, migrazio-bide erdian dagoelako eta habitat aukera ugari daudelako, berbarako: hezegunea, zelaia, landazabala, itsasertza, itsaslabarrak, harizti-bailarak eta barrualdeko baso mistoa. Osera, hegaztiak ez dira udalerrian aurki daitezkeen animalia bakarrak. Basogintzako teknikariak zehaztu duenez, 200 animalia baino gehiago identifikatu dituzte Getxoko inguruetan, esaterako azkonarra, ur-ipurtatsa, lukia, basurdea, orkatza, erbinudea, apoarmatuak, uhandreak, apoak, narrastiak, eta hegazti-espezie ugari.

Getxoko fauna-populazioaren gaineko ikerketa 1999an abiatu zuten, hegaztien inbentarioagaz, eta 2000. urtean, ugaztun, anfibio eta narrastienagaz. Ondoren, Bolueko hezeguneko faunaren jarraipenari ekin zioten, eta 2006tik aurrera Azkorri-Gorron-datxe hondartzako fauna-populazioarena egin dute,

Habitat aukera ugari dago Getxon: hezegunea, zelaia, landazabala, itsaslabarrak, bailarak eta baso mistoa, besteak beste

apo lasterkariarena (*Bufo calamita*) bereziki. Horrez gainera, 2009az geroztik, hainbat animalia-aleren errolda egiten dute, esate baterako harrapariena, eta mehatxaturiko beste espezie batzuen ere bai.

Hainbat espezie desagertu dira

Espezialistak diren espezieak dira kalteak jasaten dituzten lehenengoak, Buenetxearen arabera. Espezie jeneralistek, berriz, egokitzeko ahalmen handia dute, eta ohikoa da inguru urbanizatuetan horiek areagotzea. Hala, zerbitzua martxan hasi zenetik, espezie batzuen populazioa txikitu egin da, eta beste batzuen handitu egin da Getxon urtez urte. Oroko-

rean, kalteak jasaten dituzten lehenengo animaliak anfibioak direla jakinarazi du Buenetxeak: «anfibioak oso adierazle onak dira uraren eta habitaten kalitatea neurtzeko». Izan ere, aldaketa sakonak egonez gero, mota horretako animaliak desagertzen dira lehenengo. Hala, adituak ohartarazi duenez, Getxon badaude desagertu edo ia desagertu diren anfibioak, berbarako arrabioa (*Salamandra salamandra*) eta iberiar baso-igela edo ugaraxoa (*Rana iberica*); gainera, Bolueko hezegunean aurki daitezkeen arren, «nabarmen» murriztu dira hurrengo espezieen populazioak: uhandre marmolairearena (*Triturus marmoratus*), baso-igel gorriarena (*Rana temporaria*) eta ur-igel arruntarena (*Pelophylax perezi*).

Ugaztunei dagokienez, ur-ipurtatsa edo europar bisoia (*Mustela lutreola*) ikus zitezkeen Getxo inguruan; hala ere, bisoi amerikarra (*Neovison vison*) sartu izanak bertoko bisoia praktikoki desagerrarazi du. Hegaztiei dagokienez, zerbitzuak eskaintzen dituen datuen arabera, Bolueko hezegune eta ibarrean zenbatutako 140 hegazti espezieetatik 39 Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan daude: espezie bat, benarriz arrunta (*Acrocephalus schoenobaenus*), «galzoriko espeziea» da; 7 espezie «kaltebera» kategorian daude; 20 espezie «arraro» sailkapena dute, eta 11 espezie «interes berezizat» jotzen dituzte.

Habitataren suntsitzeak eta gehiegizko urbanizazio-prozesuek eragiten dute bioaniztasun hori murriztea, Buenetxearen arabera. Azaldu duenez, Getxon, beste leku askotan legez, «ohitura dago den-dena ibilgarri egiteko, lorategi handi bat izango balitz bezala ingurua. Ez dago korridore naturalik animalientzat, ezta eremu basatirik ere. Hori dela-eta, animalia horiek ez dute babeslekurik, eta horrek



horrela jarraituz gero, gizakiakaz ohituta dauden espezieek bakarrik egingo dute aurrera», azaldu du. Adibidetzat lukia ipini du adituak: «gero eta gehiago daude Getxon. Jendeagaz oso ohituta daude, eta Azkorriko aparkalekuetan ikus daitezke normalean».

Bestalde, hobera jo duten beste espezie batzuk ere badaude udalerrian, basurdea eta orkatza esaterako, «basoen erabilera intentsiboa baztertu delako, hein handi batean». Ostera, horrek ez du bermatzen espezie guztiek hobera egitea; izan ere, lepezuria (*Martes foina*), katajineta (*Genetta genetta*) eta azkonar arrunta (*Meles meles*) ugaztunen populazioak mantentzen badira ere, okerrera doazela ohartarazi du Buenetxeak.

Apo lasterkaria berreskuratzeko ahalegina

Esan legez, Fauna eta Natura-ingurunean Hautemateko eta Aztertze Zerbitzuak jarraipena egiten dio 2006az geroztik Azkorri-Gorrondatxe inguruan bizi den apo lasterkariaren fauna-populazioari, besteak beste. Anfibio hori 2001ean identifikatu zuten Getxoko faunaren zerrendan, eta hurrengo urtean, *Prestige* petrolio-ontzia hondoratu zenean, horrek ondorio nabarmenak eragin zizkion apo horren populazioari, «baina ez petrolioagatik; hondartzetako petrolio garbitzeko behar ziren kamioi astunek hareatzetara jaitsi behar zuten, eta kamioi horiek putzuak suntsitu zituztelako». Horren ondorioz, arrautzak uzteko gune barik gelditu ziren apo lasterkariak, eta apo horren populazioa nabarmen murriztu zen hurrengo urteetan. 2006tik aurrera egindako jarraipenak argi utzi dute hori. Egoerari aurre egiteko, adituek putzu berriak sortu zituzten lehengoak zeuden lekuetan, gelditzen ziren apoek arrautzak jar zitazten. Horren

ondoren, itsaslabarretan bestelako putzu batzuk sortu zituzten, espeziearen dispersioa bermatzeko, «erreproduzitzeko nukleo bakarra ez izateko, beharrezkoa da horretarako toki gehiago izatea». Horrenbestez, gaur egun apo lasterkariaren populazioa oso egoera onean dagoela dio Buenetxeak.

Fauna-populazioa aztertze zerbitzua

Xabier Buenetxeak kudeatzen duen zerbitzuaren helburu nagusia bikoitza da: batetik, faunaren jarraipena egitea Bolueko hezegunean eta ibarrean, bereziki apoarmatuen populazioarena; eta bestetik, apo lasterkariaren populazioaren jarraipena egitea

Jatorrizko habitaten suntsitzea eta espezie inbaditzaileak agertzea dira mehatxu handienak bertoko espezieentzat

Azkorri-Gorrondatxeko hondartzan, itsaslabarreko eta udalerriko gainerako lekuetako espezieei jarraipena egiteagaz batera. Horren albotik, udalerriko berezko espezieak batzen dituen inbentarioa ere egiten du zerbitzuak, baita populazio erroldak prestatu ere, urtekoak zein sasoikoak. «Datu horiei esker ezagutu ahal dugu habitat naturalaren kalitate-maila zein den», zehaztu du adituak.

Animalia inbaditzaileen mehatxua

Zerbitzuaren eginkizunen artean, beste atal garrantzitsu bi hauek dira: hegaztien eraztunketa zientifikoa, eta espezie exotiko inbaditzaileak kontrolatzea

eta zaintzea. Izan ere, adituak dioenez, animalia exotikoak dira bertoko espezieentzako «mehatxurik handiena». Daborduko, hainbat espezie exotiko identifikatu dituzte Getxon, berbarako Floridako apoarmatua (*Trachemys scripta elegans*), bisoi amerikarra (*Neovison vison*), koipua (*Myocastor coypus*) eta karramarro gorri amerikarra (*Procambarus clarkii*). Horrez gainera, laguntza tekniko eskaintzen dio Udalari Bolueko ingurunearen eta haren ibarraren, eta, oro har, Getxoko natura-ingurunearen kudeaketaren inguruan. Era berean, zerbitzuak «kontzientzia zioa piztea eta zeregin dibulgatzailea» duela dio Buenetxeak: «Lan hori guztia hiritarrei, eta, bereziki, adingabekoei hedatuz gero, Getxoko natura-ingurunea eta bere balioa ezagutzeko baliatu ahal izango dugu, ingurumena babesteko behar saihestezinaz ardura har dezagun». Hala, adituak nabarmendu du hiritarren parte-hartzeak eta kontzientzia zioak garrantzitsuak direla hezegunea eta natura-ingurunea kudeatzeko, baita zenbait espezie babesteko ere, esaterako Azkorri-Gorrondatxeko apo lasterkaria edo Galeako itsaslabarretan bizi den belatz bikotea. ◀



Xabi Buenetxea (Getxo)

Fauna eta ingurumen kudeaketan naturalista eta teknikari espezialista da; baita Bolueko Ingurumen Ikerketa taldeko kidea ere.

Flashback

Tiples Abesbatza, 1951-53

Erandioko Tipples Abesbatza 1949 inguruan sortu zen; on Juan Zabaleta Erabiadeak aukeratu zituen gazte abeslariak, eta hura zen zuzendaria. Erandioko patroiz San Agustin Egunean egiten zuten kantaldia zen berezietakoa; Bilboko Orkestra Sinfonikoagaz batera egiten zuten. Euskal Herrian eman zituzten kontzertu gehienak; baina, zazpi urte zituztela, Ribadesellako antzokikoa bereziki akorduan dauka Txetxu Aurrekoetxeak: Zabaletari galdetu zioten zelan bizi zen Euskadin, «lehenengo aldiz entzun genuen publikoki 'Euskadi' berba». Zabaleta Ribadesellan erbesteraturik egondakoa zen, erregimen frankistak heriotza-zigor bi kendu ostean. Aurrekoetxeak dioenez, «urteen joanagaz konturatu ginen makien kontrako borroka bizi izan genuela...».

Argazkian: ① Iñaki Zabaleta, ② Telesforo Garmendia, ③ Txetxu Aurrekoetxea, ④ Maxi Espiniella (GB), ⑤ Jesus M^a Marina, ⑥ Jose Ignacio Esnal, ⑦ Izagirre, ⑧ Javi Larreategi, ⑨ on Juan Zabaleta, ⑩ Merino, ⑪ Juan Luis Elorduy, ⑫ Jon Larraudogoitia, ⑬ Jesus M^a Izagirre, ⑭ Juan M^a Lechosa, ⑮ Asla, ⑯ Josepha eta ⑰ eta senarra (artzaiak), ⑱ Jose Luis Lechosa.



Uribitakora

TESTUA

Arrate Illaro Etxebarria

DOINUA

Zer da gaur Donostian

ARGAZKIA

Hodei Torres

Uribitakoran parte hartu gura duzu?

Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia, eta bertan ikusiko duzu, ALBEko kideek jarritako bertso eta guzti: hiruka@hiruka.eus

Eskubidea

Honek arraultzatxo bat oiloari kendu, honek gatz pixkat botaz ze atarramendu!, honek sua piztu ta berotan mantendu, honek pixkat dastatu ez dadin gizendu, eta potolo honek guztia jaten du!

Maiz jolasten genuen umeak ginela gure esku txikiak zabalduz horrela. Baina susmoa daukat (pentsatu bestela): bi eskuak handitzen doazen bezela eskuzabaltasuna txikitu ohi dela.

Ez da izan hitz joko berria nirea baina argazkian da horren bisiblea... Dena ez da jolasa ai, adiskidea! desberdinak baitira, hor adibidea: *eskua ta bidea ta eskubidea.*



Erakunde laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua